



GRADU AMAIERAKO LANA
LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA
2020

**GENEROAREN
IKUSPEGITIK, LAU ALBUM
ILUSTRATU GARA KIDERI
BEGIRADA BAT: LEHEN
HEZKUNTZAN EGINDAKO
ESKU-HARTZEA**

Egilea: Oribe Urarte, Zuriñe

Zuzendaria: Madariaga López, Itsaso

eraman la zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

LABURPENA

Albumak haurren egunerokotasunean ez-ohiko baliabideak dira, hauen funtzio hezitzailea ukazina izanik. Gainera, genero berdintasunari dagokionez, albumak eta bertako irudien funtzioa eztabaidagarri bihurtzen da, tradizionalki genero estereotipoak transmititu dituztela kontuan izanik. Lan honetan, beraz, gaur egungo albumen ilustrazio batzuek genero rola transmititzen jarraitzen duten eta generoarekiko eredu berriak eta anitzak eskaintzen dituzten aztertu da. Premisa horrekin, lan kualitatibo baten bidez, irudiz hornituriko lau album aztertu dira eta album horietan oinarrituz, Gasteizko eskola kontzertatu batean zazpi-zortzi urteko umeekin genero estereotipoen inguruko esku-hartzea aurrera eramatea erabaki da. Albumetatik ateratako datuak aztertzean, ikusi da bi albumetan genero estereotipoak zenbait arlotan birproduzitzen direla: presentzian, protagonismoan, ezaugarri fisikoetan, arropa motan, objektuetan, lanbideetan eta ekintzetan. Beste bi albumek, ordea, aurrerapausoak eman dituzte. Umeen ilustrazioak aztertzean, estereotipoak barneratuta dituztela eta euren marrazkiak egiteko garaian plazaratzen dituztela behatu da. Hortaz, zenbait irudietan parekidetasuna sustatzeko aurrerapausoak egin direla argitu da, oraindik ere estereotipo ugariaren aztarnak nabariak diren arren.

Hitz gakoak: album ilustratuak, genero estereotipoak, Lehen Hezkuntza, proposamen didaktikoa.

RESUMEN

Los álbumes son recursos de gran función educativa, aunque sean poco utilizados. Además, cuando se trata de igualdad de género, la función de los álbumes y sus ilustraciones resulta cuestionable, teniendo en cuenta que tradicionalmente estos han transmitido estereotipos de género. En este trabajo, por lo tanto, se analizan algunas ilustraciones contemporáneas con el objetivo de averiguar si se siguen transmitiendo roles de género y si ofrecen nuevos y diversos modelos. Desde esta premisa, la presente investigación analiza una muestra de cuatro álbumes ilustrados, mediante un método de análisis cualitativo. Asimismo, basándose en los álbumes mencionados, se ha hecho una intervención en un colegio concertado de Vitoria-Gasteiz con niños y niñas de siete y ocho años. Analizando los datos obtenidos de los álbumes, se ha visto que en dos álbumes los estereotipos de género se reproducen en diferentes áreas: presencia, protagonismo, características físicas, tipo de ropa, objetos, profesiones y acciones. Los otros dos álbumes, sin embargo, han avanzado. Al examinar las ilustraciones de los alumnos y alumnas, se ha observado que han interiorizado los estereotipos y los han plasmado en el momento de hacer sus dibujos. Por lo tanto, se ha aclarado que ha habido una notoria mejoría en algunas imágenes promoviendo la igualdad, aunque las huellas de muchos estereotipos aún son evidentes.

Palabras clave: álbumes ilustrados, estereotipos de género, Educación Primaria, propuesta didáctica

ABSTRACT

Albums are resources with a great educational function, even if they are little used. However, when it comes to gender equality, the function of albums and their illustrations is questionable, considering that they have traditionally transmitted gender stereotypes. In this work, therefore, some contemporary illustrations are analysed with the aim of finding out whether gender roles are still being transmitted and whether they offer new and diverse models gender. From this premise, the present investigation analyses a sample of four illustrated albums, using a method of qualitative analysis. Likewise, based on the aforementioned albums, an intervention was made in a state-subsidised school in Vitoria-Gasteiz with boys and girls aged seven and eight. Analyzing the piece of information obtained from the albums, it has been seen that in two albums gender stereotypes are reproduced in different areas: presence, prominence, physical characteristics, type of clothing, objects, professions and actions. The other two albums, however, have made progress. In examining the children's illustrations, it has been observed that they have internalized the stereotypes and captured them in their drawings. It has therefore become clear that there has been a marked improvement in some images promoting equality, although the traces of many stereotypes are still evident.

Keywords: album illustrated, gender stereotypes, Primary Education, didactic proposal

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	4
2.	GAI AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA	5
3.	IKERKETAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	6
4.	MARKO TEORIKOA: GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA	7
	4.1. Album ilustratua	7
	4.2. Ilustrazioak	9
	4.3. Sexua, generoa eta genero-identitatea	11
	4.4. Estereotipoak	13
	4.5. Sinbologia	15
5.	METODOLOGIA: GENERO ESTEREOTIPOAK IKERTZEN	18
	5.1. Metodologia	18
	5.2. Album ilustratuen aurkezpena	20
	5.3. Album ilustratuen azterketa	21
6.	ESKU-HARTZEA: BEGIRADAK ILUSTRATZEN	22
	6.1. Testuingurua	22
	6.3. Helburuak	23
	6.4. Metodologia	23
	6.5. Proposamena	24
7.	EMAITZAK	28
	7.1. Albumen ikerketaren emaitzak	28
	7.2. Esku-hartzearen emaitzak	31
8.	ONDORIOAK	35
9.	HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	38
10.	HAUSNARKETA	39
11.	ERREFERENTZIAK	40
12.	ERANSKINAK	43
	12.1. Ikasleek egindako marrazki batzuk	43
	12.2. Interneten bidez erakutsitako marrazki batzuk	44
	12.3. Albumen azterketa	45
	12.4. Ikasleek pertsonaiei esleitutako izenak	51
	12.5 Arrazoiak	52
	12.6. Ikasleek sortutako ipuin batzuk	53

1. SARRERA

Eskola, eta bereziki Lehen eta Haur hezkuntzako ikasgelak, irudiz betetako espazioak dira, haurrak une oro irudiz inguratuta daudelarik. Jakina da, egunerokotasunean erabiltzen diren materialak batez ere ipuinak direla, baina poliki-poliki albumen erabilpena areagotzen ari da, nahiz eta oraindik nahiko ezezagunak izan. Genero literario berri hau baliabide interesgarri zein aberasgarria da eta hauen irudiak hezkidetzari begira egiten duten ekarpena aztertzeraz dator lan hau. Horren ildora, Gasteizko eskola kontzertatu batean egindako esku-hartzea azalduko da.

Izan ere, ilustrazioen helburua, mezu jakin bat bidaltzea, hizkuntzak esaten ez duena transmititzea, edota hurrei ahoz kontatutakoa bisualki ulertzen laguntzea izan liteke. Hau kontuan izanik, zalantza izpirik ez dago ilustrazioek funtzio garrantzitsuak bete ditzaketela. Hori horrela izanik, eta irudiak garrantzizko tresnak direla sinetsirik, kasu honetan, albumek gizartearen ikuspegi parekideagoa eta emakume eta gizonen eredu berriak eskaini ditzaketen aztertuko da. Gainera, umeek genero estereotipoak dituzten edo ez behatuko da.

Horretarako, lau album garaikideren ilustrazioak aztertuko dira, eskoletan erabil daitezkeen gaur egungo albumek ere genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten ezagutzeko eta irudietan dagoeneko gizartearen ikustarazten hasi diren eredu ezberdin eta anitzak ezagutzeko. Horietan oinarrituz, umeengandik datuak jasoko dira.

Muin horretara heltzeko, zazpi zatitan banatuko da ikerlan hau: justifikazioa, marko teorikoa, metodologia, esku-hartzea, emaitzak, ondorioak eta hobetzeko proposamenak eta azkenik, eranskinak. Eranskinetan umeengandik jasotako datuak egongo dira.

Justifikazioari dagokionez, gai aukeraketari buruzko argudioak emango dira, bai pertsonalak bai akademikoak. Ondoren marko teorikoa dator. Horrek bost bloke nagusi izango ditu: album ilustratua, ilustrazioa, generoa, estereotipoak eta sinbologia. Bloke bakoitzaren definizioa, azalpena eta ezaugarriak emango dira autore ezberdinetan oinarrituz.

Behin marko teorikoa bukatuta, ikerketaren txanda da. Ikerketa egiteko erabiliko den metodologia aurkezten da, eta baita Gasteizko Niño Jesús ikastetxean egindako esku-hartzea ere. Ondoren, emaitzak interpretatuko dira eta ondorioak eman. Hobetzeko proposamenak adieraziz emango zaio amaiera ikergai honi.

2. GAI AUKERAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Gratu amaierako lan honetan, haur eta gazteen albumetako ilustrazioetan genero estereotipoak birproduzitzen diren aztertu nahi da, ikus kulturarekin harreman zuzenean. Horri buruz egitea erabaki da gizarteak eta hezkuntzak irudiei ez dietelako behar besteko garrantzirik ematen, eta hori ikus daiteke esate baterako, komunikabideetan, testu liburuetan eta irakurtzeko liburuetan, emakumeak sarritan kaltetuak ateratzen baitira. Comas d'Argemiren (2013) arabera, Espainiako gizartean aldaketa nabarmenak egon arren, komunikabideetan gizonen eta emakumeen irudikapenak asimetrikoa nahiz berezia izaten jarraitzen du.

Horren ildora, Lehen Hezkuntzatik aurrera, umeei, orokorrean, liburuekin ikasten dute, gaitegia testu liburuetan oinarritzen delako (Saavedra, 2017). Batez ere gizonen biografia eta aipamenak ikasten dira emakumeak gutxiago agertuz. Madrilen DBH-ko 3. mailako Gaztelania eta Literaturako testu liburuak ikertu ondoren, Sánchezek (2019) baieztatzen du:

Azpimarratzekoa da %7,51 emakume, soilik, agertzen direla eta gainerakoak gizonak direla, hots, %92,49. Desberdintasun honek, testu liburuetan emakume gutxi agertzeak, adierazten du historia eta errealitatea faltsutzen ari direla. (205 or.)

Ipuin eta albumetan emakumeen presentzia txikiagoa izanik zer gertatzen da beraien itxurarekin? Ipuin tradizionalak txikitik irakurtzea edo entzutea oso ohikoa da: *Txanogorritxo*, *Loti Ederra*, *Edurnezuri*, *Errauskine...* eta guztietan emakumea gizonaren zain, menpe edota azpitik dago. Gainera, guztiak argalak eta ederrak dira, edertasun kanonikoa baitago. Kanona grekotik datorren hitza da eta araua esan nahi du. Beraz, edertasun kanonikoa ederra izateko araua da, denboraren poderioz aldatzen doana (Navarro, 2017). Eta errealitatearekin alderatuz, egia al da emakume guztiak horrelakoak direla? Liburu bat ona dela esaten da testua egokia bada, baina irudiak ez dira liburuaren parte? Berdin da aproposak diren edo ez? Eta aditzera ematen duten mezua ez al da garrantzitsua? Irudiak kontuan hartu beharko lirateke, eta ikuspegi kritiko batekin begiratu. Gainera, Itziar Irastortzak, Tartalo argitaletxeko editoreak, dio (Arrazola, 2009:27) frogatuta dagoela txikitatik jasotako ezagutzak ondo errotuta gelditzen direla haurren nortasunean eta mundua hobeto ezagutzeko eta natura nahiz gizakiak errespetatzen ikasteko tresna paregabea dela liburuak. Liburu barruan testua eta irudiak daude, beraz, arreta jarri behar zaio.

Yolandak (2017) dioenez, irudiak ez dira errugabeak, ez dira objektiboak eta sortzen dituenak bere jarrera morala gehitzen du. Komunikabideek mundu osoko informazioa eskaintzen dutenez, beraien erabakitzen dute zein ikuspuntu eman eta nola adierazi. Adibidez, emakumea: apaintzeko funtzioa duen gizakia dela askotan zabaldu dute. Emakumeak, lurrean etzanda edo eserita agertzen dira, hankak irekita eta arropa gutxirekin. Pertsona orok hitz egitean, marraztean, idaztean, hots, edozein ekintza burutzean beraien ideologia, baloreak edota barneratutakoa inkontzienteki ezartzen edo transmititzen dira. Horregatik, irudiak interpretatuz, zein genero estereotipo bultzatzen ari diren detektatzea ezinbestekoa da, irudien interpretatze prozesuan detektatu eta sortze prozesuan ekiditeko edo behintzat pixkanaka-pixkanaka eraldatu ahal izateko. Argi dago, emakumeen eta gizonen rola betidanik gizarteak banatu dituela eta, horren ondorioz, estereotipo batzuk emakumeei esleitu zaizkie eta beste batzuk gizonei. Beraz, irudikatze orduan birproduzitzen dira. Baina nola? Horretarako, lagungarria da sinbologia ezagutzea eta ikertzea, estereotipoak zeintzuk diren jakiteko. Zer esan nahi ote dute irudietan agertzen diren elementu ezberdinek; egunkariek, amantalek, betaurrekoek, animaliek etab.? Lanean zehar erantzunak azalduko dira. Dena den, aintzat hartu behar da ilustrazioetan agertzen dena, agertzen ez dena bezain garrantzitsua dela.

Bestalde, zergatik album ilustratua eta ez beste genero literario bat? Ipuinak liburutegi gehienetan aurki daitezke eta beraien ohitura gehiago dago. Nik txikitatik izandako esperientzian oinarrituz, bai eskolan bai etxean, konturatu naiz albumak gutxi batzuek ezagutzen dituztela. Unibertsitateko hirugarren mailara arte ez nuen albumekiko informazioarik izan eta ez nuen bat bera ere irakurri. Hori dela eta, arrazoi nagusiagoa da gai hau jorratzeko eta albumekiko ekarpen txikia egiteko. Gainera, Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan erabiltzeko oso aproposak dira, erreminta pedagogiko bikainak direlako, hots, kompetentzia sortzailea, ikusizko irakurketarako gaitasuna, narrazio interpretazioa etab. ahalbidetzen dituelako. Halaber, irakasle gisa aberasgarria izan daiteke.

Laburbilduz, lan hau burutzearen arrazoia irudiek transmititzen dutena ikastea da eta umeen interpretazio zein sortze prozesu aldetik, garrantzitsua da. Halaber, sormena erabiliz, ilustrazioek birproduzitzen dutena umeekin landu daiteke. Gainera, albumetan murgiltzeko balio du.

3. IKERKETAREN HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Lana egiteko, album ilustratuak hartu dira lagintzat, bertako ilustrazioak genero ikuspegitik aztertze asmoz. Horri jarraiki, ikergai horri helburu eta hipotesi batzuk egotzi zaizkie.

Ondoko hipotesia abiapuntu hartuta burutuko da lana: gizarteak aurrera joan arren, genero estereotipoak transmititzen jarraitzen dituzten album ilustratuak daude.

Helburuen barruan, bi daude. Alde batetik, album ilustratuetako irudiek zein genero estereotipo birproduzitzen dituzten aztertzea, adituen liburuetan edota ikerketetan oinarrituz, ikuspegi kritikoa garatzeko. Bestetik, gaia garrantzitsua izanik, umeekin jorratzea erabaki da, honako helburua ezarriz: esku-hartzea diseinatzea nahiz aplikatzea, aztertutako albumak erabiliz, umeengandik datuak ateratzeko.

Bi helburu hauek fase ezberdinetan gauzatu dira. Hasteko, Adela Turinen *Los cuentos siguen contando* liburua aztertu da, genero estereotipoen sinboloak ezagutzeko eta bereizteko. Ondoren, bereziki liburu horretan oinarrituz, lau album garaikide aukeratu eta sakonki aztertu dira. Behin albumak aztertuta, esku-hartzea didaktikoa diseinatzeke aintzat hartu dira. Bukatzeko, Adela Turinen ikuspuntutik eta albumak erabiliz, esku-hartzea gauzatu da, umeengandik datuak jasotzeko asmoz.

4. MARKO TEORIKOA: GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA

4.1. Album ilustratua

Albuma definitzea ez da gauza erraza kontzeptu konplexu eta orain dela gutxikoa delako. Gutierrezek dioen moduan, albuma definitzeak zailtasunak dakartza. Liburu heterogeneoak dira, genero bakar bati dagokionak (2016:159). Horregatik, aditu desberdinen aipamenak aintzat hartu behar dira. Album ilustratua liburu mota bat da non irudiak testua baino lehen handiagoa duen. Dena den, osotasunean ulertzeko bai irudia bai testua irakurri behar dira (Miguel de Cervantes-en liburutegi birtuala, 1990:4). Orozcok (2009:3) dioen moduan, testua eta irudia elkarren osagarriak dira. Tipografia desberdina erabili daiteke, argi ikusi daiteke *¿Todavía nada?* albumean. Irudiek sekuentzia bat dute, hau da, beraien ordena mantentzea ezinbestekoa da (Miguel de Cervantes-en liburutegi birtuala, 1990:5). Van der Linden-ek *Lire l'Album* obran ondoko definizioa esleitu zuen: albuma adierazteko modu bat da, testuen (azpikoa) eta irudien (bereziki nagusia) arteko elkarrekintza dagoena eta oinarri bezala liburu bat duena. Antolatze askatasuna, materialen aniztasuna eta orrialdeen jarraitasun arina eta koherentzia du ezaugarri (2006:14).

Roserok (2010:5), genero literario horri hainbat ezaugarri gehitzen dizkio. Orokorrean tapa gogorrekoak direla esaten du, marrazkiek orrialde osoak hartu ohi dituztela eta bi orrialdeko bizpahiru esaldi daudela. Beraz, album bateko istorioa orrialdez orrialde irudikatu beharrean eta bakarka irakurri beharrean binaka doaz. Duranen (2008:2) esanetan, albumak alfabetoraren konpetentzia kognitiboak, kalkulua, denbora eta espazioa jabetzea baimentzen du. Horrez gain, adierazpen-, irudimen- eta irakurtze-gaitasunak aberasten dira (Gutierrez-Garcia, 2011:16). Liburu horiek interpretatzea eta ulertzea batzuetan ez da erraza, testua eta irudia irakurri behar direlako. Hortaz, aipaturiko definizioak elkartuz, albuma testua eta irudien sekuentziazioa elkartzen dituen literatura-lanari deritzo; zabaldutako ustearen kontra, adin guztietarako aproposa dena.

Roseroren (2010:7) arabera, hiru harreman mota daude testua eta irudiaren artean, honako hauek direnak:

- **Harreman ironikoa:** Testuak dioena eta irudiak dioena ez datoz bat. Irudiek eta hitzek elkar borrokatzen dute, hau da testuak gauza bat esaten du eta irudiak kontrakoa. Irudiak testuak baino garrantzia handiagoa du halako kasuetan eta “egia” irudiaren bidez helarazten zaio irakurleari. Adibide argia *El muro en mitad del libro* (Jon Agee, 2018) da.
- **Elkar osatzea:** Batak bestea osatzen du. Ez da beharrezkoa ikusten den oro testu bidez ere azaltzea. Hala, irudi bidez informazio asko ematen da eta horrek ahalbidetzen du testua dezente murriztu ahal izatea (bereziki deskribapenei dagokienean).
- **Eginkizunak banatzen dira:** Pasarte zehatzetan irudiak funtzio narratibo osoa hartzen du, hau da, testua implizitua da.

Beraz, eta aurrekoa aintzat harturik, irudiari ondoko funtzioak dagozkiola esan daiteke:

1. **Irakurgaia edertzea:** logikoa den bezala, irudiek irakurgaia edertu egiten dute irakurleentzat erakargarriago egitearekin batera.
2. **Edukia azpimarratzea:** irudiek istorioan gertatzen diren momentu garrantzitsuenak azpimarratzen dituzte; beraz, istorioaren beraren edukia enfatizatzeko ere balio dute.
3. **Testuak diosenaren aurkakoa esatea:** batzuetan testua eta irudia ez datoz bat, eta hori bera da irudiaren funtzioa (testuarekin kontraesana sortzea).

4. **Hitzek azaltzen ez dutena erakustea:** detaile asko ez dira testu bidez azaltzen dagoeneko irudiak azpimarratzen duelako.

Bestalde, osotasunean ulertzeko eta nahasketarik ez egoteko nahitaezkoa da jakitea irudi liburuak, liburu ilustratuak, eta album ilustratuak ez direla gauza bera. Irudi liburuetan ez da ohikoa testurik egotea, eta egotekotan gutxi daude. Marrazkiak sekuentzia logikoei buruzkoak dira: esnatzea, gosaltzea, dutxatzea... Halaber, irudi solteak ere agertzen dira, frutak eta objektuak esaterako. Hortaz, irudien ordena ez da garrantzitsua. Irudi liburuen helburua, didaktikoa da (Orozco, 2009:8)

Liburu ilustratuetan, ordea, testua eta irudiak agertzen dira eta esan daiteke, testuak bakarrik funtzio narratiboa duela. Ilustrazioek testuan esandakoa adierazten dute, beraz, irudiek funtzio estetikoa dute. Marrazkiak oso ondo landuak egon daitezke, detailez josiak, eta espazio handia hartu dezakete. Liburu horiek bideratuta dauden umeen adinaren arabekoak dira. Horrek esan nahi du, irakurleak zenbat eta handiagoak, orduan eta marrazki gutxiago egongo direla (Orozco, 2009:8).

Albumekin ez nahasteko, jakin behar da, ilustrazioek, albumetan hainbat funtzio dituztela, edertzeaz gain. Hau da, istorioa ulertzeko ezinbestekoa da irudiak irakurtzea, hots, ilustrazioak kentzen badira istorioa osotasunean ez da ulertuko. Beraz, Duránek esaten duen moduan, “La diferencia entre un libro ilustrado y un álbum no tiene nada que ver con la calidad o cantidad de ilustraciones que contiene, sino con la función y efectos de éstas” (2009: 210).

Dena den, hiru liburu mota hauen artean ez dago hierarkiarik, hau da, irudi liburuak ez dira txarrenak eta albumak onenak, ezta alderantziz ere. Badaude album, irudi liburu eta liburu ilustratu oso onak, baita, noski, hain onak ez direnak. Beraz, kalitatea ez da formatoak baldintzatua.

4.2. Ilustrazioak

Ilustrazioaz aritzean, hainbat definizio topa daitezke aditu desberdinen hitzetan. Murillo Carreñoren (2012:10) esanetan, ilustrazioa irudiaren bidez, ideiak edo pentsamenduak ezagutzera emateko erabiltzen den komunikazio bidea da. Revista Páginas-en (2013) arabera, ilustratzean istorio bat kontatu nahi da hitzik gabe. Sinboloen edota marrazkien bidez zerbait azaltzen edo laburtzen saiatzen da. Murillok (2012) aipatu zuen Chichoni

ilustratzaileak ere, ilustrazioak komunikatzeko duen funtzioa azpimarratzen duela modu honetan:

En un cierto género de pintura se plantea un hecho prevalentemente estético donde la composición y el uso del color suelen tener una preponderancia sobre la anécdota. En la ilustración, en cambio, existe siempre una carga narrativa más evidente y directa. Por lo tanto creo que una ilustración es una suma de calidad estética, buena técnica y originalidad narrativa. (9. or.)

Haur ilustrazioen kasuan, irudien presentzia eta garrantzia areagotu egiten da. Izan ere, haur literaturan irudiek hainbat funtzio betetzen dituzte:

- Haurrak estimulatu egiten dituzte.
- Plazera sortarazten dute.
- Informazioa transmititzen dute.
- Testuaren eta irudien arteko interakzioak ideiak komunikatzen ditu.
- Haurrari erraztasuna ematen diote istorioaren garapena ulertzeko.

Sotresen (2017) marraztearen, margotzearen eta ilustratzearen arteko bereizketa egin zuen. Hala eta guztiz ere, jakitea garrantzitsua da. Marraztea itxura edo forma bat oinarri fisiko batean irudikatzea da. Normalean ikatz-ziria erabiltzen da eta lerro edo trazu meheak egiten dira. Monokromatikoak direla esan ohi da, kolore bakarra erabiltzen delako, baina salbuespenak badaude, pastelekin egindakoak adibidez. Margotzea, ordea, desberdina da. Orbanen, bolumenaren eta testuraren bidez egindako obra da. Gainera, pigmentuak erabiltzen dira, eta gehienetan pintzelak baliatzen dituzte pigmentu horiek ezartzeko. Pintura batean momentu edo pentsamendu zehatz bat irudikatzen da. Ilustrazio batean, berriz, istorio bat kontatzen da, testuko hitzak irudietara ekarriz. Halaber, ilustrazioek adierazi nahi duten ideien inguruko informazioa eta ezagutza transmititu behar dute.

Erroren (2000:3) hitzetan, kontuan hartu behar da, irudi bat ulertzeko, horiei hertsiki lotuta dauden konbentzionalismoak ezagutzea ezinbestekoa dela; hau da, irudiak irakurtzeko ere ezinbestekoa da kode jakin bat ezagutzea. Aipatu beharra dago, elementu hauek lan honetan burutuko den irudien azterketan ez direla sakonki aztertuko, irizpideetan beste lehentasun batzuk zehaztu baitira. Kode horren baitan, bi ezagupen bereizten dira: alde batetik, funtsezko elementuak: perspektibak, marrazkiak, koloreak, etab. lengoia espezifiko modura ulertzen direnak.

Bestetik, konbentzionalismo sozial eta kulturekin lotutako faktoreak ulertu beharko lirateke. Hau da, inguratzen duen errealitate kultural eta sozialaren arabera, pertsonak kontzeptu bera modu desberdinean irudikatzen dute. Esate baterako, mendebaldeko herrietan eguzkia zirkulu hori baten bidez irudikatzen da, Japonian gorritz margotzen den bitartean (Erro, 2000:3). Gauza bera gertatzen da, beraz, irudi bat interpretatzean, izan ere, irudi bera modu desberdinean uler dezakete testuinguru desberdineko bi hartzailek. Honekin zera ondorioztatzen da: haurrek ez dituzte ilustrazioak modu natural eta automatikoan ulertzen, ezinbestekoak dira testuinguruarekiko elkarreraginen bidez zenbait jakintza bereganatzea. Honekin lotuta, Murillok (2012) honakoa baieztatzen du:

L@s niñ@s tienen más dificultades que el adulto para reconocer una figura pequeña que se esconde en una figura mayor, lo mismo que para relacionar los detalles en una totalidad, no sólo porque su cara es más pequeña y sus ojos están más cerca el uno del otro, sino también porque el niño ha vivido menos y que, consiguientemente, tiene menos experiencia en la cual basar sus juicios.(11. or.)

4.3. Sexua, generoa eta genero-identitatea

Ikerketa honen oinarrietako bat generoa denez oso ondo desberdindu behar da genero nahiz sexu terminoak. De Juan Herrera eta Pérez-ek (2007) honela definitzen dute sexua:

Desde el punto de vista de la Biología, se denomina sexo al conjunto de características biológicas de un organismo que permiten diferenciarlo como portador de uno u otro tipo de células reproductoras o gametos (óvulos o espermatozoides), o de ambos (organismos hermafroditas). (164. or.)

Hortaz, sexua ugalketa organoen araberakoa da eta hainbat sexu daudela esan daiteke: maskulinoa (gizonei atxikitzen zaiena), femeninoa (emakumeei esleitzen zaiena), “herms” (hermafroditak), “merms” (seudohermafroditak maskulinoak barrabilekin jaiok eta sexu-organo femenino batzuekin), eta azkenik, “ferms” (seudohermafrodita femeninoak, obuluekin jaiok sexu-organo maskulino batzuekin). Desberdinak direnez bakoitzak ezaugarri zehatzak ditu.

Ezaugarri sexual hauek 1869an definitu zituen Hunter anatomistak. Berak bi multzotan banatu zituen: lehen mailakoak eta bigarren mailakoak. Lehenengoei dagokienez, jaiotzearekin batera daudenak dira, eta bigarrenak, berriz, pubertaroan sexu garapenarekin datozenak. Beranduago Havellock Ellis-ek, sexologia garaikidearen aitzindariak, hiru

multzotan banatu zituen: lehenengo mailakoak (obulutegiak eta barrabilak); bigarren mailakoak (traktu genital maskulinoa eta femeninoa, besteak beste: zakila, prostata, konduktu seminiferoak etab. eta alua, bagina, umetokia eta tronpak) eta hirugarrenak (gorputzaren egitura: ahotsa, psikismoa eta eskeletoa. Gaur egun, ordea, beste bi talde gehiago daude banaketa horren barruan (De Juan Herrera eta Pérez, 2007:172).

Behin sexua zer den azalduta genero hitza definitzea egokitzen da. De Juan Herrera eta Pérez- en (2007) arabera, generoa hau da:

Se utiliza para designar un constructo social, en el que se separa lo sociológico de lo biológico. Son los rasgos de conducta, actitud y personalidad que una sociedad, en un determinado periodo histórico y cultural, designa como masculino o femenino. Lo que esa sociedad «espera» de una persona con un determinado sexo. (173. or.)

Gizarte Zientziek generoa jarrerari dagozkion arau multzoa bezala azaltzen dute non gizon eta emakumeei atxikitzen zaien talde jakin batean. Beraz, gizarteak sexu-organo maskulinoari eta femeninoari esleitzen dien jarrerari, jokabideari eta izaerari generoa deritzo. Subjektu bat jaiotzen denean, familiaren bidez, kultura, balio egokiak, bere sexuaren arabera espero diren jokabideak, janzkerak, jolasteko eta jokatzeko moduak, itxaropenak, arauak eta sinesmenak transmititzen hasten dira (Noir, 2010:129).

Álvarez-ek (2012) aipatzen du Alfama eta Miró-k generoa harremanekin estuki lotuta dagoela azpimarratu izan dutela, generoa harremanen egitura konplexu baten moduan ulertuz:

Por género entendemos, por lo tanto, un sistema de relaciones sociales, simbólicas y psíquicas en el que los hombres y las mujeres son situados de manera diferente (...) Este sistema de relaciones nos indica lo que significa ser hombre o mujer, la relación entre estos dos significados y las distintas pautas de poder y subordinación con las que se dan estos vínculos. Esto se ha concretado históricamente en una relación desigual de poder entre mujeres y hombres. (12. or.)

Díazen (2019:28) esanetan, genero maskulinoa eta femeninoaz gain, genero fluidoa, transgeneroa eta transexualitatea ere badaude. Genero fluidoa identitate genero bakar batekin ez denean identifikatzen da. Posible da batzuetan genero maskulinoaren barruan sentitzea, beste batzuetan femeninoaren barruan, bietan edo ez batean ez bestean. 90.eko hamarkada inguruan, LGTBI mugimenduko kide batzuk, identitate estereotipoekin eroso ez egonda, queer izendatzen hasi ziren, hau da, edozein identitate kontzeptuaren aurka dagoen

oro. “Las personas queer se oponen por completo a cualquier noción de identidad” (Díazen, 2019:28).

Noseda-k transexualitatea honela definitzen du: “Persona cuya identidad de género no concuerda con el sexo asignado en el nacimiento. Las personas transexuales suelen querer modificar su cuerpo para poder aliviar esta incongruencia”. Transgeneroa, berriz, hau da: “Persona cuya identidad de género o expresión no coincide con las expectativas sociales típicas de su género de nacimiento asignado. Las personas transgénero pueden o pueden no querer modificar sus cuerpos tomando hormonas o sometiéndose a cirugía” (2012:9).

Identitate hitza behin eta berriz errepikatu ostean, definitzea egokitzen da. Identitatea bakoitza zer sentitzen den da, hau da, homosexuala, bisexuala, heterosexuala, gizona, emakumea, baikorra, ezkorra, itsusia, polita... Hortaz, identitate generoa bakoitza bere burua gizona edo emakume bezala ikustea datza. Hooker psikologoak eta Stoller psikoanalistak genero identitatea zer zen azaldu zuten lehenengoak izan ziren. John Money-rentzat ondoko hau da, De Juan Herrera eta Pérezek (2007) aipatua:

Es la propia categorización de una individualidad como hombre, mujer o ambivalente, en la que uno tiene autoconciencia de los propios procesos mentales y de las conductas propias. La identidad de género como la conciencia de sentirse hombre o mujer. (174. or.)

4.4. Estereotipoak

Aipatu bezala, ilustrazioek mezu desberdinak zabal ditzakete arrakasta handiz. Hala ere, zenbaitetan mezu horiek sexuen arteko rola iraunarazteko mezuak bidaltzen dituztela esan daiteke. Estereotipoak zer diren jakitea ezinbestekoa da eta horretarako aditu batzuen iritzia aintzat hartu da lan honetan.

Dominguez-en (2017) hitzetan: “Los signos generalmente difundidos por los medios de comunicación, que tienen un sesgo ideológico implícito son los estereotipos”. Berak esaten duen moduan, talde bat deskribatzeko beti irudi berdina erabiltzen bada kaltegarria da eta arriskuak dakartza. Behin eta berriz gauza bera entzutean edo ikustean errealitatea dela uste da. Emakumeak beraien itxurari garrantzi handia eman behar diotela, umeak oso bihurriak direla, arrakasta duten pertsonak azal zurikoak direla, porrot egiten dutenak gizentasuna dutenak direla errepikatzean egiazat hartzen da azkenean.

Mackie-ren (1973) proposamena onartuz, Gonzalezek aipatua (1999:81), estereotipoa hau da: “aquellas creencias populares sobre los atributos que caracterizan a un grupo social (por ejemplo, los alemanes, los gitanos, las mujeres), y sobre las que hay un acuerdo básico son los estereotipos”. Estereotipoak askotan izaerari erreferentzia egiten diote, baina ez dira bakarrak (Suríak, 2010:4).

Dena den, kontu handia izan behar da estereotipoak eta aurreiritziak ez nahasteko. Azken horiek ezkorrek dira, talde sozial bati buruzko epaiketak eta sinesmen txarren multzoa dira, hots, ebaluazio negatiboa egiten zaio taldeari. Estereotipoa, aldiz, taldeari esleitutako ezaugarriei buruzko sinesmen multzoa da, lehen aipatu bezala (Suría, 2010:4).

Laburbilduz, estereotipoak kultura eta momentu historiko zehatz batean talde bati ezartzen zaizkion ezaugarri komunien multzoa dira, beraz, genero estereotipoak generoa osatzen duten kanpoko ezaugarriak, rolak eta funtzioak lirakeke. Bi genero estereotipo bereiz ditzakegu: femeninoa (emakumezkoari esleitua) eta maskulinoa (gizonezkoari atxikitua). Hauek oposizioz definitzen dira, “osagarriak” direla esaten da eta hierarkizaturik daude, maskulinoa femeninoaren gainean egonik (Urtxintxa Eskola, 2007:11).

Hau azalduta, jarraian, hainbat ikerketek (Association Européenne Du côté des filles, 1999; Urtxintxa eskola, 2007:12) frogatu dituzten estereotipoen taula bat agertuko da (1. taula), non genero bakoitzari esleitzen zaizkion ezaugarriak azalduko diren (kontuan hartuko dira album ilustratuen irudiak aztertzean estereotipoak transmititzen diren ikusteko):

EMAKUMEZKOAK	GIZONEZKOAK
Espazioa: Espazio pribatuan	Espazioa: Espazio publikoan
Zaintza lanei lotuak. Objektuak: umeen kotxea, erosketen poltsa, etab.	Gutxitan agertzen dira zaintza lanei lotuta.
Etxeko lanei lotuak. Objektuak: amantala, erratza, garbitzeko tresnak, etab.	Etxetik kanpoko lanei lotuak. Objektuak: Zorroa/maletina.
Irakurgaiak: ipuinak, aldizkariak edo eleberri arrosak. Harreman pribatuen eta sentimenduen munduari lotuta.	Irakurgaiak: Egunkariak.
Pertsonaien adina: Askotan helduak (irakurlearen “ama”-ren adinekoak)	Pertsonaien adina: Askotan irakurlearen adinekoak, gizonezko heldu gutxi.
Lanbideak: Etxeko langileak, andereñoak, erizainak, dendariak.	Ikasleak edota lanbide anitzagoak (paper eta funtzio gehiago).

Beldurtiak	Ausartak
Pasiboak	Ekintzaileak
Sentimenduei lotuagoak	Arrazionalagoak
Jostailuak: jostailu gutxiagorekin agertzen dira. Gehienetan panpinak.	Jostailuak: jostailu gehiago eta anitzagoak dituzte: kirolarekin lotuak, jostailu teknologikoak, etab.
Gorputza/ezaugarri fisikoak: ederrak lirainak, txukunak, garbiak, apainduak.	Gorputza/ezaugarri fisikoak: ederrak, gihartsuak.
Arropa: lazoak, gona, soinekoa.	Arropa: prakak eta kamiseta, askotan zikin.
Koloreak: arrosa, gorria.	Koloreak: urdina, zuria.
Gurasoekin dituzten harremanak gutxiago deskribatzen dira: aginte, zigor eta debeku gehiago jasotzen dituzte.	Gurasoekin dituzten harremanak gehiago deskribatzen dira: gurasoen arreta gehiago lortzen dute, gehiagotan dira animatuak eta sarituak.

1. taula: Zenbait ikerketek aztertutako ilustrazioetako genero estereotipoak

Taulan agertzen den moduan, gizarteak genero bakoitzari hainbat ezaugarri eta jokabide atzikituko dio, estereotipo mordoa sortuz. Ikerketa lan honek albumak aztertzeko orduan nahiz esku-hartzea egiteko garaian lanbideei berebiziko garrantzia eman die, zelan estereotipatu diren jakiteko.

4.5. Sinbologia

Real Academia Españolak sinbologia irudi multzoa bezala deskribatzen du. Estereotipoak zeintzuk diren jakin ostean, ikertu behar da zein objekturi edo irudiri egozten zaizkion eta zer esan nahi duten. Horretarako, Adela Turin-en *Los cuentos siguen contando* (1995) liburua oinarri bezala hartu da. Liburuko orrialde zehatzak ezin dira jakin, Covid-19 baino lehenago hartu eta aztertu baitzen.

OBJEKTUA	ESANAHIA
Amantala	Garbitasunarekin lotura dauka, eta baita haurrak zaintzekoarekin ere. Emakumea edo neska kalean dagoenean amantala erabili beharrean saski edo aulkitxo bat eramaten du, erosketekin nahiz umeekin lotura zuzena duena.
Kubo metalikoak/ erratz zaharrak/ zapi bustiak	Baldintza txarretan/iraingarrietan lan egitera behartuta dago emakumea. Teknologia ez dela emakumeen gauza adierazi nahi da. Batzuetan emakumea lau hanketara dago, ilea aurpegian erorita

	duelarik. Menpeko pertsona dela ageri da.
Betaurrekoak	Formakuntza duen pertsona da, oso azkarra, baina bateraezintasuna dago inteligentziaren eta edertasunaren artean. Gainera emakumea izanik izaera kaskarrarekin ere atxikitzen da. Honek esan nahi du, klaseko onena desatsegina, ikastetxeko zuzendaria doilorra, "solterona" izaba izan ohi da, inork ez duenez maite nebaren etxean bizi da umeak zaintzen. Amak ez du inoiz betaurrekorik, aitak ordea bai.
Egunkaria	Kanpoko munduaren informazioari eta jakinduriari lotuta, informazio iturria delako. Denbora propioaren sinboloa da. Bizitza kolektiboan parte hartzeko aukera ematen du.
Ipuinak/aldizkariak/eleberriak	Arduragabetasun falta adierazten dute. Errealitatearekiko interes falta.
Zorroa/maletina	Lanbide intelektuala edo exekutiboa.
Zintak/lazoak/orrazkera berezia	"Feminidad atolondrada". Tontakeriak egiten dituen neska.
Leihoa	Leihoaren atzean daudenak (ama eta alaba) bizitza igarotzen ikusten dute. Emakumeak pasiboak direla irudikatzen du. Ekintzen ikusleak dira, ez partaideak. Mundu errealarekiko mugak dituzte, leihoak bakartzen eta babesten dituzte. Afektibitatearen partaide dira.
Katua	Beti etxean dago, beraz, barrualdearekin lotura dauka. Katua emakumearekin lotzen da, bera ere barruan dagoelako, eta horren ondorioz katuak dituen ezaugarriak emakumeari esleitzen zaizkio: gozotasuna, edertasuna, grazia, nagitasuna, berekoikeria eta traizioa.
Txakurra	Kanpoko animalia da, gizonari atxikitua. Ezaugarriak: leiala, erresistentzia, adimen handikoa, adoretua

2. taula: Adela Turin-en liburutik ateratako sinbologia

AMA:

- Aberatsak direnean lasai-lasai josten dute, denbora libre mordoa dute eta soineko eleganteak eramaten dituzte.
- Pobreak direnean oso gaixo daude eta batzuetan hiltzera iristen dira.
- Etxeko andreak dira: ez dute kanpoko lanbiderik, ez dute interes kulturalik, ez dute paseatzen, ez dute kirolik egiten, ez dituzte lagunik, ez dute kotxea gidatzen, ideia politikoak ez dituzt etab. Lehen uste zen ama batek ez zuela eskubiderik eta pasientziaz nahiz etsipenez betea egon behar zela.
- Zoriontasuna seme-alabekin lotua: amatasunak dena sendatzen du.
- Seme bakarra duenean bere jarrera halakoa da: pazientea eta otzana. Semearen menpe dago, ezin du hezi ezjakina delak o. Umeak gaiztakeria bat egiterakoan ez da kexatzen.
- Alaba duenean: amak ez du amantalik, aholkuak ematen dizkio alabari, horrek etxeko andrea izaten ikasteko. Generoari esleitutako ekintzak egiten ditu, bizkotxoak, animaliei (txoriei eta tximeletei) buruz hitz egin. Ama ederra da eta soineko politikak ditu.

AITA:

- Batzuetan ez da agertzen: bera delako ekonomikoki nagusia eta dirua eraman behar du etxera. Jateko orduan, soilik, agertzen da.
- Telebista ikusten du: Albisteak, informazio gunea delako
- Afektibitate gutxi
- Puntuala, zorrotza, mekanika arloan ona, azkarra
- Erabakiak hartzen dituena
- Etxeko arazoak konpontzeko gaitasun eza, gehiegi kostatzen zaio eta gaizki egiten du. Horrek adierazten du emakumea izan behar dela etxeko kontuez arduratzen dena.

NESKA:

- Biktima sozial edota fisiko bezala aurkezten dira (etxean gelditzen dira, istripu batek harrapatu...)
- Itxaronaldia pazientziarekin lotuta dago, neskei egokitutako ezaugarri bat.
- Erakusten zaie: etsipena eta irudimena ihesbidea dela.
- Amets egitera/idea burgabeak edukitzera bultzatzen dituzte lortzeko probabilitate eza edukitzeko
- Gezurtiak dira eta akats egiteko aukerarik ez dute. Askotan zigortzen dituzte bai oharkabetasunagatik bai hutsegiteagatik. (Mutilei ez zaie zigortzen, ez da arazo larri bezala ikusten)
- Azkarra bada ez da neska ona. Beti zerbait txarra egon behar da, adibidez Clementina
- Bekaiztiak dira eta solidaritate falta dute
- Zaletasunak: dantzariak izatea
- Ekintzaileak izateagatik hiltzen dira, hala nola, Veronica.

Adela Turinen liburuan mutilei buruzko ekarpena ez du egiten emakumeetan fokoa jartzen duelako. Horien ezugarriak, jarrera, jokatzeko era, erabiltzen dituzten objektuak zehazten ditu.

5. METODOLOGIA: GENERO ESTEREOTIPOAK IKERTZEN

5.1. Metodologia

Lanaren hasierako atalean adierazi diren helburu eta hipotesiak oinarri hartuta, ikerlan honen garapenean sakontzeko egin den bidea azaltzera dator hasi berri den atal hau. Datozen lerroetan aurkeztuko dira ikerketa honetan erabili den metodologia.

Ikerlan hau burutzeko eta hasieran zehaztutako hipotesia frogatzeko, hau da, gizarteak aurrera joan arren, genero estereotipoak transmititzen jarraitzen dituzten album ilustratuak daudela frogatzeko, lan kualitatiboa baliatu da. Ikerketa mota honen hautaketaren arrazoa, aukeratutako album ilustratuen azterketa sakonago bat egiteko aukera dagoelako da eta burutu den esku-hartzean egoerak deskribatzeko eta ulertzeko askatasuna dagoelako. Horrez gain, aipatu behar da lortuko diren emaitzak mugatuak izango direla, lagina mugatua baita, bai album-ilustratu zehatzak hartu direlako, bai esku-hartzea Gasteizko ikastetxe kontzertatu bateko bigarren mailako haur talde batekin egin delako.

Lana aurrera eramateko albumen aukeraketa ahalik eta egokiena izateko, zenbait irizpide zehaztu eta jarraitu dira:

- **Album ilustratua izatea.**

Adin guztietako irakurleei zuzendutako genero literarioa izatea, non irudia eta hitza sekuntzietan biltzen eta uztartzen diren literatur-lan bat erakitzeko asmotan.

- **Liburuaren gaia genero estereotipoa ez izatea.**

Estereotipoak kultura eta momentu historiko zehatz batean talde bati ezartzen zaizkion ezaugarri komunak direnez, horri buruz diharduten albumak ez dira hartuko.

- **Azken hamarkadako albuma izatea.**

Duela urte askoko albumek estereotipo tradizionalak bete-betean transmititzen dituztela argi dago, jendarte tradizionalaren isla izanik. Horregatik, interesgarria da gaur eguneko albumetako ilustrazioek, jendartean berdintasunaren diskurtsoa nahiko hedatua dagoen honetan, zer nolako irudiak eskaintzen dituzten aztertzea.

Jarraian, aldagai hauek kontuan izanik, ikertzeko aukeratutako albumak azalduko dira. Alfabetikoki edo argitaratutako urtearen arabera kokatu beharrea, albumak aukeratu izan diren ordenaren arabera antolatu dira, hots, taulan lehenengoa agertzen dena hautatu den lehenengo albuma da. Irudiak iiburuetatik hartu dira, azalari argazki bat eginez.

Izenburua	Idazlea	Ilustratzailea	Argitaletxea	Urtea	Azala
<i>¡De aquí no pasa nadie!</i>	Isabel Minhós Martins	Bernardo P. Carvalho	Takatuka	2017	
<i>El muro en mitad del libro</i>	Jon Agee	Jon Agee	La casita roja	2018	
<i>Z familia</i>	Pep Bruno	Mariona Cabassa	Pamiela, Kalandraka	2010	
A	Lorena Martínez Oronoz	Lorena Martínez Oronoz	Denonartean	2014	

3. taula: Aukeratutako album ilustratu garaikideak

Albumak behin aukeratuta, hauen irudien azterketa egin da. Hori egiteko erabili diren ikerketa tresnak, hiru dokumentu izan ditu oinarri: *Los cuentos siguen contando* (Turin, 1995), *Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak* (Zaitegi de Miguel eta Urruzola, 1993) eta Association Européenne Du côté des fillesek 1999an egindako estereotipoen inguruko ikerketa (Urtxintxa eskola, 2007). Lan honetan hirurak uztartzea erabaki da, ikerketari ekarpena eginez, ikerketa tresna berri bat osatuz, ahalik eta ikerketarik sakonena egiteko asmoz.

5.2. Album ilustratuen aurkezpena

Irudien azterketa egiteko, lau album hautatu dira (3.taula). Esan beharra dago, obren artean zenbait antzekotasun topa badaitezke ere, aniztasuna dela ezaugarri nagusia, album tradizioaletatik aldentzen direlarik. Jarraian, ipuin hauek hautatzera eraman gaituzten arrazoi desberdin eta anitzak azalduko dira:

¡De aquí no pasa nadie!

Liburu honek 2015ean Portugaleko Komikien Sari nazionala irabazi zuen eta haurrentzako album ilustratuen marrazkirik onenetarikoak dela adierazi da. Horregatik aztertzeke aproposa da. Liburua diktaduraren, iraultza baketsuaren eta askatasunaren ingurukoak da.

El muro en mitad del libro

Album honek jendartean arrakasta itzela lortu du. Halaber, 2018an egunkari eta aldizkari ospetsuenek (Publishers Weekly, The New York Times Book Review, Boston Globe, Chicago Tribune eta People Magazine) urteko liburu onenetarikoaren artean ipini dute. Horrek esan nahi du nahiko ona dela, eta beraz, sakontzeke liburu paregabea. Hitzaren eta irudiaren harreman ironikoak irakurleak harrapatzen ditu.

Z familia

Obra honek, 2010ean album ilustratuen Compostelako III. Nazioarteko Saria irabazi zuen eta beraz, interesgarria da hurbilagoetik aztertzea. Liburuan, familia baten bizimodua da ardatza, zeinetan zirkuarekiko zaletasunak elkartu eta bizia ematen dien. Beraz, egunerokotasuna eta zirkuarekin lotutako ezaugarriak elkartuko dira.

A

Testurik gabeko album honetan otso bat eta neska bat ageri dira. Otsoak, haurra izutu nahian, oihukatzen du eta neska beldurtzen da. Baina, gero, oihua itzultzen dio lehia irabaziz. Lorena Martinezek, marrazkien sinpletasunarekin jolasean, adierazi nahi duen mezua ederki islatzen du. Hortaz, gertutik aztertzea erakargarria izan liteke.

5.3. Album ilustratuen azterketa

Lehen aipatu bezala, Adela Turinen liburua *Los cuentos siguen contando*, Emakunderen *Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak* eta Association Européenne Du côté des filles ikerketak oinarri gisa erabili dira liburuetatik datuak jasotzeko. Hiruen uztarketak aukera eman du azterketa sakonagoa egiteko, erreminta zehatza sortu da, behean agertzen den txantiloia hain zuzen ere. Datu zehatzak eskuratzeko arlo ugarian sakondu da: presentzian, protagonismoan, ezaugarri fisikoetan, arropa motetan, objektuetan, lanbideetan, ekintzetan eta espazioan. Gero, emaitzak bitan banatu dira: alde batetik, albumetatik lortutakoak daude, eta bestetik, proposamen didaktikotik ateratakoak. Emaitzak tauletan edota grafikoetan bildu dira. Horietako asko eranskinetan ikusgai daude, interpretazioa emaitzetan agertzen den arren.

	GIZONAK	EMAKUMEAK
1.- PRESENTZIA		
Pertsonaia-kopurua		
2.- PROTAGONISMOA		
Protagonista nagusia		
Protagonistaren rola/jarrera/betebeharrak		
Gainerako pertsonaien rola/jarrera/betebeharrak		
3.- JANTZIAK		
Arropa mota		
Arroparen kolorea		
4.- GORPUTZA		
Ilea		
Argala/lodia		
5.- FAMILIA		
Seme-alabak eduki		
6.- LANBIDEAK		

Lanbideak

Bere generoari atxikitzen ez zaizkion lanbideak

Ordaindutako lanbideak

7.OBJEKTUAK

Bere generoari atxikitzen ez zaizkion objektuak

8.- ESPAZIOA

9.- BESTELAKOAK

4. taula: Adela Turin erreferente gisa sortutako txantiloia

Dena den, A marrazkien sinpletasunak ez du uzten txantiloia erabiltzen, horri esker detalle ugari jasotzen baitira eta liburuan ez daude. Album honetan ilustrazioen bidez helarazten den mezua da garrantzitsua. Horregatik, albuma aztertzeko garaian fitxa moldatu da. Gertatzen den ekintzan arreta jarri da eta baita itxura fisikoan ere.

6. ESKU-HARTZEA: BEGIRADAK ILUSTRATZEN

6.1. Testuingurua

Genero estereotipoak gai garrantzitsua izanik Gasteizko eskola kontzertatu batean esku-hartze txiki bat egitea erabaki da, Niño Jesús ikastetxean hain zuzen ere. Eskola hau Gasteizko hiri erdian dagoen itunpeko B ereduko ikastetxe bat da, non ingelesezko, gaztelaniazko eta euskarazko ikasgaiak ematen diren. Niño Jesusen hezkuntza-eskaintzak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hartzen ditu bere baitan.

Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko bigarren mailako ume talde bat aukeratu da esku-hartzea aurrera eramateko, hots, sei-zazpi urte bitarteko 27 haurrekin. Haurren arteko ezberdintasunak nabarmenak dira; arlo kognitiboari nahiz sozialari dagokionez. Piageten garapen kognitiboaren teoriari jarraiki (Martín, 1994), adin hori duten umeak bigarren etaparen bukaeran eta hirugarrenaren hasieran daude, aurre-operazionala eta operazio

zehatzen etapetan hain zuzen ere. Umeak egozentrismotik irteten dira eta pentsamendu objektiboagoa lortzen dute. Horren ondorioz, modu logikoan arrazoitzen hasten dira.

6.3. Helburuak

Gratu Amaierako lan honek helburu eta azpi-helburu ezberdinak ditu. Helburu horiek Oinarrizko Hezkuntza Curriculum arautzen duen 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea oinarri hartuta zehaztu dira (Hezkuntza Saila, 2016), irudiak interpretatu eta sortzearekin harreman estuan:

- Marrazkietan genero estereotipoak daudela identifikatzea, albumetako irudiak erakutsiz eta hausnarketa eginez, ikuspegi kritikoa garatzeko.
- Irudiek gugan eragina dutela ikustea, marrazkiak eginez, ikasleek ikuspuntu berria edukitzeko.

6.4. Metodologia

Aztergai izan diren album ilustratuen lanketa oinarri erabiliz, irudiek transmititzen dutena jorratzea izan da helburu. Atal honetan, erabili den metodologia zehatz-mehatz azalduko da. Hasteko, esan beharra dago modalitateari dagokionez, lan kualitatiboa hautatu dela, umeengandik lortutako datuak behatu, ulertu, deskribatu eta konparatu direlako.

Goian aipatzen diren bi helburuek irudien kontsumoarekin eta produkzioarekin zerikusi izugarria dute. Ikasleak ilustrazioetan oinarrituko dira betebeharrak burutzeko, esaterako galderak erantzun. Hortaz, umeak aktiboak izango dira, hots, protagonistak/ekintzaileak. Hausnarketak ere metodologiaren parte dira, hauei esker hurrek daukaten ikuspuntua aldatu nahi da, pixka bat bada behintzat, edota zalantza puntua piztea. Horretarako jardueren amaieran talde osoan iritziak partekatuko dira eta ideia kontrajarriak eskaini.

Lau saio proposatu dira eta hauek hiru fasetan banatuta daude; geroago, zehaztasunak agertuko dira. Lehenengo fasearen baitan lehenengo bi saioak daude. Hirugarrena bigarren fasean dago eta azken saioa hirugarrenean. Lehenengo fasean produkzioa ardatz eduki da. Umeek irudiak produzitu eta izenak asmatu dituzte, irakasleak informaziorik eman gabe, bakarkako lana izanik. Izenak asmatu ostean gogoetari bide eman zaio. Hausnarketa horrekin fasea bukatutzat eman da. Bigarren fasean, produkzioarekin

jarraitu da, baina umeez informazio, iritzi eta ideia berriak entzun dituzte eta lana binaka burutu dute. Amaitu ostean, gogoeta berriro ere egin da eta fasea horrekin itxi da. Azken fasean, beraiek egindako marrazkiak enkoadernatuta eraman zaie aurreko saioetan ikusitakoa finkatzeko edo ikuspuntu berria edukitzeko asmoz.

6.5. Proposamena

Jarduerak burutzean, edozein esku-hartzetan bezala, honetan ere hainbat gaitasun landu dira Heziberrin oinarrituak, besteak beste: hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia (ikasleak izango dira beraien usteak plazaratuko dituztenak eta galderak erantzungo dituztenak), ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia (ikusitako irudien hausnarketa egingo dute), elkarbizitzarako konpetentzia (uneoro lantzen da, talde osoan zein bakarka lan egitean, bai ikaskideekiko bai irakaslearekiko errespetua izanik), ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia (irakasleak galderak egitean eta beraiek parte hartzean), eta azkenik, norbera izaten ikasteko konpetentzia (kritikotasuna lantzen da). Arterako Konpetentzia zuzenean lantzen da ilustrazioa ardatza delako, eta Hizkuntza eta Literatura Komunikaziorako Konpetentzia ere bai, ikasleek saio guztietan azalpenak ematen baitituzte. Horrez gain, eduki batzuk lantzea nahitaezkoa denez hona hemen esku hartzean landutakoak:

KONTZEPTUAK	PROZEDURAK	JARRERA
Genero estereotipoak	Albumetako irudien bidez	Motibazioa
Irudien eragina	Marrazkien produkzioa	Autonomia

5. Taula: Begiradak Ilustratzen esku-hartzearen edukiak

Behin gaitasunak eta edukiak jakinda, saio bakoitzaren planifikazioa azaltzea dator. Saioak hiru fasetan banatuta daude. Lehenengo fasean bi saio daude, bigarreanean bat eta hirugarreanean beste bat. Denbora nahiz umeen erantzuna dela eta, hasiera batean planteatzea espero zena eta azkenean planteatu dena ez da berdina, jarduera bat kendu behar izan delako, beranduago azalduko dena.

Lehenengo faseko lehenengo saioari erreparatuz, *¡De aquí no pasa nadie!* albumean eta *Todos Fazemos Tudo* Madalena Matosok ilustratutako liburuan oinarritu da. Albumean pertsonaia anitz agertzen dira lanbide mordoetan, eta beraz, umeei,

lanbideak marrazteko eskatu zaie. Ariketa honek jarraipen zehatza du egin ezin izan den ariketarekin: bigarren saioa, *cadáver exquisito* bat egitea zen helburu. Seguradoreen (2009) arabera, *Cadáver exquisito*-a surrealisten 1925ean erabiltzen zuten zorizko sorkuntza kolektiboaren teknika da. Jolas moduko bat da non partaide bakoitzak bere ekarpena egiten duen, besteek zer ekarpen egiten duten jakin gabe. Ekarpen individual horien batuketak aurrez irudikatu ez duen lana sortzen du. Orrialdea hainbat zatitan banatzen da. Bakoitzak zati bat marrazten du eta gero bere zatia tolesten du besteek ikus ez dezaten. Ondo tolestean beste bati ematen dio eta horrek beste zati bat marrazten du. Egitura errepikatzen da zati guztiak marraztu arte. Bukatzean guztien artean sortutako marrazkia ikus daiteke (beste lenguai batzuk ere erabili daitezke, hizkuntza eta gorputza esaterako). Hori burutzeko, lanbideekin jarraituko litzateke eta talde-lanean aritu. Horrela, umeak seguruago zein askeago sentituko lirateke eta irudi aberatsagoak ikusi ahalko lirateke.

Tamalez, hasierako jardueran edukitako zailtasunak eta denbora falta aintzat hartuta, ezin izan da saioa aurrera eraman eta lanbideekin jarraitu ordez, izenei bide eman zaie. Taulan lehenengo saioaren azalpena eta xehetasunak agertzen dira.

Izenburua	<i>Lanbideak marrazten</i>
Zeregina	Ikasleak nahiz eta txokoka egon, bakarkako lana dela aipatu zaie. Orrialde batean umeek nahi zuten lanbidea marraztu dute. Horretarako konsigna batzuk markatu zaizkie, gero, guztiak elkartuko direlako (<i>ikus eranskina 11.1</i>). Orriaren goiko aldean burua egin behar dute, erdiko aldean gorputza eta erabiltzen dituzten tresnak edota materialak eta behekoan, hankak nahiz lurra. Orriaren atzean haien izena, pertsonaiaren izena eta familiako hiruren lanbideak idatzi dituzte. Bukatzean, talde osoan, zer marraztu duten partekatu da. Egia da izena ez dela generoaren adierazle, baina haurren erantzunak jasotzeko erabili da.
Heziberri2020ko eduki multzoa	Arterako Konpetentzia: 5.multzoa (arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea)
Taldekatzea	Bakarkako lana izan da, baina azkenengo minutuetan talde osoan hitz egin da.
Materiala	Orri zuriak, margoak, arkatza.
Espazioa	Gela
Denbora	40 minutu

6. taula: *Begiradak Ilustratzen: 1. saioa*

Bigarren saioari dagokionez, arestian aipatu bezala, cadáver exquisito bat burutu nahi zen, baina ezin izan denez beste jarduera bat proposatu da, izenekin zerikusia duena. Berriz ere, *¡De aquí no pasa nadie!* euskarritzat erabili da. Aurreko ariketan, beraien pertsonaiari izena jarri diote, eta oraingoan, albumeko zazpi pertsonaiei. Bi saioetan itxura fisikoa, kanpoko ezaugarriak, koloreak, jantziak etab. sakondu dira.

Izenburua	Izenak asmatzen
Zeregina	<i>¡De aquí no pasa nadie!</i> albumaren zazpi marrazki erakutsi zaizkie umeei eta beraiek pertsonaiei izen bat esleitu diete. Horretarako albumean dauden izenak ez tali. Ondoren, arbelean iritzi guztiak jaso dira, hots, zergatik mutila edo zergatik neska aukeratu duten argudiatuz. Hemen ere, izena erreminta bezala baliatu da. Zazpi pertsonaiekin bukatu ostean, eta haien iritziak kontuan hartu eta gero, interneten bidez argazkiak erakutsi zaizkie, gatazka kognitiboa sortzeko xedez (<i>ikus eranskina 11.2.</i>). Hausnarketa bat bideratu da aurreideiak poliki-poliki aldatzen joateko, ezin daitekela bat-batean kontzeptu aldaketa egin.
Heziberri2020ko eduki multzoa	Hizkuntza- eta literaturako komunikazioarako kompetentzia: 2. Multzoa (ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea).
Taldekatzea	Izenak jartzeko garaian, hasieran, banan-banan egin da, baina denbora eskasa zegoela ikusita txokoka bukatu da. Ondoren, talde osoan hausnartu da.
Materiala	Orriz zuria, arkatza, arbela, klariona, ordenagailua, proiektorea eta internet.
Espazioa	Gela
Denbora	Ordubete

7. taulaa: *Begiradak Ilustratzen: 2. saioa*

Bigarren saioa bukatzean lehenengo fasea amaitutzat ematen da, eta bigarrenarekin hasten da. Fase honetan ariketa bakarra dago eta *El muro en mitad del libro* albumean oinarritua dagoen arren, lehenengo fasean hausnartutakoarekin erlazio zuzena du. Umeei ipuina sortu eta marrazki bat egin beharko dute. Bai ipuinaren protagonistari bai marrazkiei erreparatuko zaie, protagonista nor den eta hurrek kanpoko itxura nahiz ezaugarriak kontuan hartu dituzten edo ez jakiteko. Horrez gain, ikasleek erabilitako adjektiboak aztertuko dira.

Album hori hartu da oinarritzat protagonista mutila delako. Askotan protagonistak mutilak dira, emakumeen presentzia murrizten delarik, eta horretan arreta jartzea funtsezkoa da.

Izenburua	<i>Idazle paregabeak</i>
Zeregina	Binaka piraten inguruko ipuin bat asmatu dute (album ilustratua ez dute egin ez dakitelako zer den eta konplexua delako, marko teorikoan aipatu bezala). Piratei buruz egitea erabaki da Txanela ikasgaiaren itsasoa zelako gaia eta ikasleen interesekoa zelako. Ipuin bakoitzak protagonista bat edo batzuk eduki ditu. Mutilak edo neskak izan dira? Ikasleek ipuinak bukatzean guztion aurrean irakurri dute eta hausnarketa bideratu da galderen bidez. Zergatik zuen piratak mutilak/neskak dira? Zer iruditzen zaizue beti mutilak agertzea?
Heziberri2020ko eduki multzoa	Hizkuntza- eta literaturako komunikazioarako konpetentzia: 2. eta 3. multzoak (ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea eta idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea, hurrenez hurren).
Taldekatzea	Binaka eta talde osoa
Materiala	Txanela liburua, arkatza eta borragoma
Espazioa	Gela
Denbora	Ordubete

8. taula: *Begiradak Ilustratzen: 3. saioa*

Hirugarren eta azken fasea heldu da. Hemen ere ariketa bakarra dago, eta lehenengo fasea berriro ekarri da. Hainbat saio burutu ostean, eta hausnarketak egin eta gero, esku-hartzea ixteko ariketa bat proposatu da.

Izenburua	<i>Begiak irekiz</i>
Zeregina	Lehenengo saioan egin zituzten marrazkien liburua eman zaie. Marrazkiak enkuadernatuak eta hiru zatitan moztuak daude: goiko zatia, erdikoa eta behekoa. Borobilean jarri dira eta ikasle bakoitzak orri zatiak mugituz pertsonaia berriak asmatu ditu. Irudi berriak gainerako ikaskideei erakutsiak izan dira, eta horrek hausnarketarako aukera eman du.
Heziberri2020ko eduki multzoa	Arterako Konpetentzia: 5.multzoa (arte-adierazpen plastiko eta bisualak ekoiztea, espresatzea eta sortzea)
Taldekatzea	Talde osoa
Materiala	Marrazkien liburua
Espazioa	Gelan
Denbora	Ordubete

9. taula: *Begiradak Ilustratzen: 4. saioa*

7. EMAITZAK

7.1. Albumen ikerketaren emaitzak

Ikerketa hau egiteko eman diren urratsak eta erabili den metodologia azaldu ondoren, lortu diren emaitzak aurkezteko unea iritsi da. Dagoeneko aipatu da ikerketa honi ikuspuntu kualitatibotik heldu zaiola eta albumetako ilustrazioek genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten ikertzea dela helburu. Alde batetik, aztertutako albumak daude, eta bestetik, eskolan egindako esku-hartzearen datuak. Albumen taulak eranskinetan ikusgai daude (*ikus eranskinak 11.3.*).

Behin albumak aztertuta, interpretatzeko garaia dator, estereotipoetan eta sinbologian fokoa jarritz. Presentziari dagokionez, pertsonaia femenino nahiz maskulinoen presentzia ez da parekatua. Ikus daiteke *¡De aquí no pasa nadie!* albumean gizonen kopurua emakumeen halako bi baino gehiago dela eta *El muro en mitad del libro* obran mutil gazte bat soilik dagoela. Hala ere, aipatzekoa da, *Z Familiar* bai gizonen bai emakumeen artean oreka dagoela. Gainera, askotan ezin da ezberdindu neska edo mutila den. Hortaz, aurrerapauso galanta da.

Horren ildora, pertsonaien protagonismoa dago, hau da, ezinbestekoa da jakitea nor/nortzuk diren protagonistak, zeintzuk diren beraien betebeharrak, adina, baita gainerakoen rola ere. 2017an gaztelaniaz argitaratutako albumean argi dago paper garrantzitsuena guardiak daukala, bera baita gainerako guztiei alboko orrialdera igarotzen uzten ez diena, bere buruzagiaren agindupean. Halaber, ausartenak eta debekatuta dagoena egiten lehenak bi haur dira, mutilak hain zuzen ere. Gainontzekoek kexak besterik ez dituzte egiten. Dena den, aitortu behar da gizonezkoak direla zaindariari gehien aurre egiten diotenak, lau emakumeren ahotsak bakarrik entzuten baitira. 2010ean argitaratutako liburuan protagonismoa zaldun txikiak eta ogoak daukate, arestian esan bezala, emakumeen presentziarik ez dagoelako. Gainera, ogoa maskulino bezala irudikatu da, tradizionaletik urruntzen ez delarik. *Z Familiar*, ordea, familia baten egunerokotasuna islatzen denez, protagonistak aita, ama eta semea dira. Bestalde, Association Européenne Du côté des fillesen ikerketetan esaten da haurrak mutilak izan ohi direla eta emakumeak egotekotan helduak (Urtxintxa eskola, 2007). Album hauetan frogatzen da nola haurren adineko mutil eta neska kopurua antzekoa den arren, mutilen kopurua pixka bat gainera dagoela.

Ezaugarri fisikoei erreparatuz, pertsonaien gorputzen zein motatako irudikapena egiten den aztertu da, gorputzen irudikapen estereotipatua egiten den edo ez ikusteko. Modu honetan, aztertutako albumetan gorputzak irudikatzerakoan irudigileek, zenbait kasutan, estereotipoak alde batera utzi dituztela ikus daiteke. Izan ere, pertsonaien irudiak sortzeko erabilitako elementuetan (forma, marra, posizioa, etab.) ez diote gorputzaren formari garrantzia handia eman nahi izan, emakume lirainak eta gizon gihartsuak ekidinez, *Z Familia* esaterako. *¡De aquí no pasa nadie!* albumean, adibidez, pertsonaiek betaurrekoen azpian begi txikiak eta sudur erraldoiak dituzte, edertasunetik urrunduz. Hala ere, guztiak argalak irudikatu dituzte, errealitatea baztertu dute pertsonaia lodiak marraztu ez dituztelako. Bestetik, ezin aipatu gabe utzi ileari buruzko zehaztapen hau: ile luzea irudikatu denean, pertsonaia femeninoetan izan da soilik.

Honekin batera, pertsonaien arropa mota aztertu da. Alde batetik, jantziei dagokienez, emakumeak soineko edo gonekin erlazionatzen jarraitzen dutela esan beharra dago, bai *A bai ¡De aquí no pasa nadie!* albumetan. *Z Familian*, ordea, ez. Nahiz eta gonak egon ezin daiteke gizona edo emakumea den jakin. Dena den, egia da amak takoiak jantzen dituela eta aitak eta semeak ez. Bestetik, koloreei erreparatu zaie. Gai honen inguruko sentsibilizazio handiagoa dagoela nabari da, aztertutako albumetan horren inguruko aurrerapausoak sumatu baitira. Izan ere, bi generoetako pertsonaiak agertzen dira edozein koloretako arroparekin. Oro har, koloreen aniztasuna nabaria da, koloreen banaketa tradizionalki egin dena baino anitzagoa izanik.

Horrez gain, garrantzitsua da, irudien alderdi teknikoei erreparatzea. Hauen artean, koloreen erabilera azpimarratzea funtsezkoa da. Izan ere, *Z Familiaren* irudigileak, Mariona Cabassak, kolorearen erabilera zehatza egin du, adierazi nahi zuena lortzeko kolorea baliabide sinboliko gisa erabiltzea tresna eraginkorra dela erakutsiz. Album honetan kolore neutroek, hau da, beltzak, zuriak, eta grisaren tonalitate desberdinek, egunerokotasuna, errutina edota helduen errealitatea islatzen dute; kolore biziak bizitasuna, poztasuna, edota irudimenaren isla direlarik. Hau esanda, aipatzekoa da, orri gehienen oinarria kolore neutroek osatzen dutela, pertsonaiak izanik kolorearen eta beraz, bizitasunaren emaile. Horrela izanik, esan daiteke, kolorea ez dela generoen arteko bereizketa areagotzeko erabilia izan, bestelako mezu bat bidaltzeko baizik.

Pertsonaiei atxikitzen zaizkien objektuei dagokionez, hainbat kasutan, pertsonaiak euren generoari atxikitu ohi ez zaizkien objektuekin lotuta agertu direla ikusi da, arlo honetan, estereotipoak gaindituz eta eredu berriak eskainiz. Hala, *Z Familian* ama egunkariarekin eta pisuekin irudikatua izan da eta aita, sukaldeko tresna zein josteko makinarekin.

Lanbideei dagokienez, zenbait kasutan pertsonaiak haien generoari ohi ez zaien lanbideari lotuta agertzen dira; hala nola, *Z Familiar* aita jostun bezala aurkezten da, ama mago gisa eta *¡De aquí no pasa nadie!* albumean gizon dantzaria dago. Tamalez, azken album honetan 50 pertsonaietatik batek bakarrik estereotipoak haustea adierazgarria da. Gizonak lanbide anitzetan agertzen diren bitartean (10.taulan ikus daitekeen moduan), hamalau emakumeetatik hamabik ez dute ezer egiten.

Pertsonaien ekintzekin jarraituz, aipatzekoa da *Z Familiar* gizona dela gosaria prestatzen duena, amak egunkaria irakurtzen duen heinean. Bestetik, senideak leku batetik bestera mugitzeko arduradun bezala, ama aurkezten da, kotxea gidatuz, normalean gizonetzkoen lotuta dagoena. Horrez gain, semeak kirol batera jolastu beharrean, jolasordua kulunkan igarotzen du. *A* albumean irudien bidez transmititzen den ekintza funtsezkoa da. Ikusten da nola neska gazteak otsoari aurre egiten eta irabazten dion. Lorena Martinezek “neska beldurtia” estereotipoarekin akabatzen du. Gainerako bi albumetan, berriz, ez dago bere generoari atxikitzen ez zaion ekintzarik.

Txantilioatik ateratako datuekin bukatzeko, espazioari erreparatuz, argi geratu da toki publikoa gailentzen dela. Orokorrean, leku pribatuetan ez daude, eta egotekotan, bai emakumeak bai gizonak, agertzen dira. *Z Familiar*, soilik, leku itxi batean agertu dira. Gainera, aita katuarekin agertu da, Adela Turinek aipatzen zuen ideari aurre eginez. Berak katua neskekin eta txakurra mutilekin erlazionatzen zuela behatu zuen. Dena den, *¡De aquí no pasa nadie!* albumean bi mutil txakurrarekin agertu dira, eta beste animaliak arrak adierazi dituzte.

Amaitzeko, aukeratutako albumek irudien eta testuaren arteko harremana aztertuko da. Marko teorikoan ikusi den moduan, testuak eta irudiak hiru harreman mota izan ditzake: ironikoa, elkar osatzea eta eginkizunak banatzea. Ironikoari dagokionez, *El muro en mitad del libro* eta *Z Familiak* harreman mota hau dute, irudiak testuak diotenaren aurkakoa aipatzen baitu. *¡De aquí no pasa nadie!* albumak, ordea, elkar osatze harremana du, hitzek azaltzen ez dutena adierazten dutelako, eta azkenak, *A-k*, eginkizunak banatzea.


Tipografiari dagokionez, letra desberdina izan dezakeen arren, azken honetan izan ezik, gainerako albumetan, idazleak eta ilustratzaileak ez dute horrekin jokatu. *A-n*, berriz, Lorena Martinezek *A* letraren tamainarekin jolastu du. Albumek edozein harreman dutela, genero estereotipoetan horrek ez duela eraginik izan aipatu behar da.

7.2. Esku-hartzearen emaitzak

Bestalde, albumen interpretazioa bukatu, Niño Jesús ikastetxean egindako esku-hartzearen datuak aurkezteko unea iritsi da. Saio bakoitzeko datuak jaso dira eta emaitzak bisualago ikustearren, hainbat grafiko nahiz taula egin dira. Ezin aipatu gabe gelditu, ume batzuek ez dutela saio guztietan parte hartu, jarduerak burutu zirenean etxean gaixo zeudelako.

1. SAIOA: *Lanbideak marrazten*

Lehenengo saioan, ikasle bakoitzak pertsonaia bat lanbide batean marraztu du. Guztira 27 ikasle izan arren, jarduera egitean 24 ume soilik zeuden. Haurren marrazkiak aztertze orduan, pertsonaiari ipini dioten izena baliatu da neska edo mutila den jakiteko. Aurretik esan bezala, izena ez da generoaren indikatiboa, baina ikerketa honetan datuak jasotzeko erabili da. Umeek hamar neska eta hamalau mutil marraztu dituzte (*ikus eranskinak 11.1.*), 1.grafikoan ikus daitekeen lanbideetan:



1. grafikoa: marrazkietan agertutako lanbideak

Grafikoa behatuz gero, argi eta garbi nabari da ikasleek genero estereotipoak dituztela. Association Européenne Du côté des fillesek (Urtxintxa, 2007) eta Adela Turinek (1995) aipatu bezala, emakumeak zaintza lanarekin lotzen dituzte eta normalean etxeko langileak, andereñoak, erizainak eta dendariak izan ohi dira. Hamar nesketatik sei, ikerketek

esandakoarekin bat datoz. Gizonen kasuan, berriz, kanpoko lanekin erlazionatzen dituzte, zaintza lana alde batera utziz. Egia da ume batek maisu bat marraztu duela, baina esan beharra dago Gorputz Hezkuntzakoa dela, hau da kirolarekin lotua. Gainerakoak, lanbide anitzekoak dira.

Behin lanbideekin bukatuta, umeek pertsonaia bakoitza nola irudikatu duten aztertzea dator. Horretarako, lanean zehar aipatutako ikerketetan oinarrituz, item batzuk jarri dira eta beheko taula egin da.

ITEMAK	NESKAK	MUTILAK
Jantziak	Kamiseta: 3 Prakak: 1 Gona: 2 Soinekoa: 5 Uniformea: 2 Takoia: 4 Zapatilak: 5 Oinutsik: 1	Kamiseta: 9 Prakak: 9 Gona: 0 Soinekoa: 1 Uniformea: 4 Takoia: 0 Zapatilak: 12 Oinutsik: 2
Koloreak	Denetarik	Denetarik arrosa izan ezik
Itxura fisikoa	Argalak Lirainak	Argalak bat izan ezik
Ilea	Luzea Ez oso luzea ez oso motza Kizkurra/lisoa Ileko goma	Kresta Burusoila Ile motza
Osagarriak	Belarritakoak Betaurrekoak	Betaurrekoak
Objektuak/tresnak	Botiken kutxa Mekanikarien erremintak Dentisten erremintak Zapatak Kutxazainek erabiltzen duten tresna Jantziak	Bihurkina Kalkulagailua Baloiak Saskia Bolantea Arkatza

10. taula: ikasleek marraztutako pertsonaien ezaugarri fisikoak

Taula honetan umeek emakumeak nahiz gizonak zein itxura fisikorekin eta arroparekin erlazionatzen dituzten ageri da. Jantziei dagokienez, ikus daiteke neskak bereziki soinekoekin lotu dituztela eta mutilak prakekin. Gainera, askok neskak takoiekin marraztu dituzte, eta mutilen kasuan ez da bat bera egon. Hortaz, ezin uka daiteke marko teorikoan azaldutako ikerketek jantziekiko aditzera eman duten estereotipoak umeetan barneratuta daudela. Bestalde, koloreak direla eta, esan beharra dago ez dituztela arrosa eta urdinak soilik erabili, sailkapen tradizional hori alde batera utzi dute. Dena den, egia da mutilak ez dituztela arrosaz inoiz jantzi.








Pertsonaien alderdi fisikoari erreparatuz, bi generoetako pertsonaiak, orokorrean, argalak marraztu dituzte, errealitatetik urrunduz. Horrez gain, emakume asko lirainak irudikatu dituzte, ezpainak margotuta edota betile luzeekin. Gizonei, ordea, ez diete betileak ipini. Halaber, ederragoak bihurtzarren zenbait neskei belarritakoak jarri dizkiete. Ilarekin jarraituz, normalean nesken ilea luzea eta mutilena motza izan da, aldaera batzuk izan dituztelarik; besteak beste, ile kizkurra, lisoa, luzera desberdina, krestarekin eta burusoilak. Neska bati kopeta-ilea gomaz hartu diote. Beraz, jantziekin gertatu den moduan, lanean aipatutako estereotipoak birproduzitzen dira.

Bukatzeko, lanbideak adierazteko erabili dituzten tresnak, objektuak edota detaileak aztertu dira. Kasu ugaritan, detailerik ez dituztenez egin, ezin izan da pertsonaiak zein lanbide duen jakin. Adierazgarriena, ume batek arkitekto bat marraztu duela eta arkatza jarri ezik betaurrekoak ere jarri dizkiola izan da. Adela Turinek esan bezala, mutilen kasuan betaurrekoak eramatea adimenaren seinale da, eta hala izan da. Neska bat ere betaurrekoekin irudikatu dute, mekanikaria izanik.

Bestalde, orriaren atzealdean umeek haien senideen hainbat lanbide idatzi dituzte. Horrekin frogatu nahi zen ea marraztutako lanbideak eta senideenak berdinak edo antzekoak ziren. Honako lanbide hauek atera dira: erizainak, farmazeutikoak, mekanikoak, nekazariak, albitariak, fabrikako langileak, etxeko andreak, irakaslea, bankariak, dentistak, sukaldariak, sendagileak, kamioi gidariak, pilotuak, haurtzainak, kutxazaina, dendariak, bulegariak, arkitektoak, poliziak, banatzaileak eta iturginak. Beraz, esan daiteke senideen lanbideek umeen marrazkietan eragin dutela.

2. SAIOA: *Izenak asmatzen*

Bigarren saioan ikasleei *¡De aquí no pasa nadie!* albumeko zazpi irudi erakutsi zaizkie eta beraiek ikusitakoaren arabera izen bat jarri behar izan diete (*Ikus eranskina 11.4.*). 11. taulan hauteman daitekeen moduan, estereotipoetan berriro erori dira. Izan ere, mutiltzat kirolaria, baloiarekin jolasean dagoen umea, guardia eta krestaduna hartu dute. Neskatzat, berriz, soinekoduna, ile luzeduna eta umeekin dagoena. Egia da, zalantza asko egon direla baita iritzi kontrajarriak ere. Ikasle askok hiru pertsonaiekin, Carolekin, Víctorrekin eta Madrerekin hain zuzen ere, zalantza handiak izan dituzte, ez zekitelako neskak edo mutilak ziren. Izena jartzeko garaian mutilak ala neskak ziren galdetu duten arren ez dute erantzunik jaso. Ondoko taulan, zehatz mehatz ikasleen erantzunak agertzen dira. Irudiak albumetik atera dira.

Pertsonaiak							
Mutila	%96	%28	%88	%52	%88	%60	%20
Neska	%4	%72	%12	%48	%12	%40	%80

11.taula: ¡De aquí no pasa nadie! pertsonaietatik ateratako portzentaiak

Ikasleek izenak ipinitakoan, talde osoan aukeratutakoaren arrazoiak partekatu dira (*Ikus eranskinak 11.5.*). Mutila edo neska zergatik diren esan dute, eta espero ziren argudioak erabili dituzte; kresta, ilearen luzera, belarritakoak, baloia etab. Aipagarriena ume batzuek kamisetak puntutxoekin nesken arropa direla baieztatu dutela izan da, eta baita trajeduna izateagatik mutila dela ere. Jarraian, interneten beraien kontrako argudioei buruzko argazkiak jartzean, batzuk harritu egin dira eta beste batzuk ez, normaltzat hartu baitute. Bat-batean hurrek dituzten estereotipoak haustea edota desagertzea zaila den arren, zalantza pizteko edo hausnarketarako bidea egiteko balio izan du. Esan bezala, ez da egun bateko lana soilik.

Umeekin saioa aurrera eramatean irakaslea harri eta zur gelditu da ez duelako ulertu nire ariketaren zergatia. Berak, irmotasunez argi dagoela esan du, oso erraza dela jakitea noiz den neska eta noiz mutila. Hortaz, bera ere esterotipoen menpe dago. Hau ekiditeko eta ikuspegi kritikoa izan ahal izateko, umeekin txikitatik landu beharko litzateke. Itxura fisikoak, arropak, zaletasunak, hitz egiteko erak, esaterako, ez du neska edo mutila diren baldintzatzen.

3. SAIOA: *Idazle paregabeak*

Ikasleak bikoteka jarri dira ipuinak sortzeko, eta hogeita zazpi ikasle direnez hamahiru bikote egin dituzte. Hiru bikote mixto, nesken lau bikote eta bost bikote mutilez osatuak egon dira. Nesken bi bikotek piraten ipuina sortzean protagonista neska jarri dute eta beste biek ez dutela pentsatu esan dute, baina zer zen gadetzean neska zela erabaki dute. Mutilen lau bikotek, ordea, pirata mutila zela aitortu dute. Hala ere, bikote batek pirata anitz jarri ditu protagonista gisa eta bai mutilak bai neskek zeudela adierazi du. Azkenik, hiru bikote mixtoek pirata mutila zela esan dute (*ikus eranskinak 11.6.*). Ikus daitekeen moduan protagonismoa gizonei ematen zaie, nahi gabe emakumeei presentzia ukatuz.

4. SAIOA: *Begiak irekiz*

Esku-hartzearen azken saioa lehenengoan egindako marrazkietara itzuli da. Jarduera hau proposamena ixteko egin da eta hausnarketa bultzatzeko. Xedea, ikasleek aurreko ariketetan hitz egindakoa eta landutakoa era praktiko batean ikustea izan da. Horretarako, marrazkien liburua eman zaie eta pertsonaia berriak sortu dituzte. Orokorrean, hasieran edukitako erantzuna barrea izan da. Izan ere, barregarriak iruditu zaizkie asmatu dituzten pertsonaiak. Egia da, geroago, egindako iruzkinak beste ikuspuntu batetik begiratzen lagundu dutela.

8. ONDORIOAK

Aurreko atalean, hautatutako albumen ilustrazioen azterketaren emaitzak aztertu dira, baita Niño Jesús ikastetxean lortutako datuak ere, eta jarraian, horiek kontuan hartuz atera diren ondorioak aurkeztuko dira.

Atal honetan, beraz, ikergaiaren hasieran ezarritako hipotesia, helburuak, burututako galderak eta marko teorikoa berriz hartuko dira horien berrikusketa egiteko asmoz; jarraian, aurrekoa argudiatzeko erabili diren emaitzetatik ateratako ondorioak aurkeztuko dira.

Esan bezala, lehenik eta behin, lana gidatu duen hipotesia bete den ala ez ikusiko da, egindako ikerketaren bidez lortutako emaitzen argitan. Ondoko hipotesia izan da ikergaiaren iparrorratza: gizarteak aurrera joan arren, genero estereotipoak transmititzen jarraitzen dituzten album ilustratuak daude.

Lana burutzen hasterakoan, lau album garaikidetako irudiek zer nolako ereduak eskaintzen dituzten aztertu nahi zen, bai etorkizunean irakasle gisa albumak ikasleei erakusteko erreminta aberasgarria baitira bai jakintza handitzeko. Aurrekari bezala hartu diren ikerketetan *Los cuentos siguen contando* (Turin, 1995), bereziki, nahiz Association Européenne Du côté des filles (Urtxintxa eskola, 2007) ateratako emaitzak oinarri gisa erabili dira, eta aurreko atalean aipatutako emaitzak kontuan hartuta, esan daiteke hipotesi hori baieztatu egin dela, baina ñabardura batzuekin. Izan ere, alde batetik, ikerketan ikusi ahal izan denez, iruditegi parekideago bat sortzea egingarria da, irudien bidez eredu anitzak eskainiz eta transmitituz, hezkidetzarako baliagarria izanik, *Z familia*, *A* eta *Todos Fazemos Tudo* esaterako. Batez ere, lehenengoan ikusi da nola tradizionalki genero bakoitzari esleitutako objektuak/ekintzak/lanbideak trukatuak izan diren.

Beste alde batetik, hala ere, oraindik ere genero bakoitzari lotutako zenbait ezaugarri albumetako ilustrazioetan dirautela ikusi da. Beraz, oraindik ere aurrerapausoak eman behar

direla sinesten da, zenbait kasutan irudiek eskaintzen dituzten ereduak gaur eguneko errealitatera hobeki egokitu eta eredu berriagoak transmititu daitezen. Emakumeen presentzia handitu beharra dago, protagonismo gehiago eman, ekintzaileagoak bihurtu eta edertasunarekin nahiz jantziekin arreta izan.

Horrekin lotura zuzena duen lehenengo helburua hauxe da: album ilustratuetako irudiek zein genero estereotipo birproduzitzen dituzten aztertzea, adituen liburuetan edota ikerketetan oinarrituz, ikuspegi kritikoa garatzeko. Argi dago, ahal den heinean behintzat, sakondu egin dela eta horregatik, bete dela baieztatu daiteke. Irudietan dauden elementuak eta marko teorikoan azaldutakoak identifikatu dira, besteak beste, egunkaria eta etxeko lanen banaketa. Beraz, justifikazioan egindako galdera, genero estereotipoak nola birproduzitzen diren, erantzun da. Hala eta guztiz ere, emaitzak Adela Turinek egindako ikerketarekin alderatuz gero, hobekuntza izugarria egon dela nabari da. Egia da, beste album batzuk hautatu izan balira, emaitza ezberdinak ateratzea posible izango zela.

Ikasleen datuei erreparatzean, estereotipoak birproduzitzen direla frogatu da. Adela Turinek aipatu bezala, orokorrean emakumeak zaintza lanarekin erlazionatu dituzte eta, gizonak, aldiz, ez, futbolariak gailentzen direlarik. Senideen lanbideak behatzean aniztasuna dagoela ikusgai dago eta nahiz eta lanbide batzuk errepikatu irakaslea eta kutxazainarena ez dira errepikatu.

Beraiek marraztutako pertsonaien kanpoko itxurari erreparatuz gero, genero bakoitzari egokitutako ezaugarriak plazaratu dituzte; besteak beste, ile luzea, gona, soinekoa, takoiak eta makilajea neskei, eta ile motza, prakak eta kamiseta mutilei. Izenak ipintzeko orduan, ezaugarri horietan fokoa jarri dute, eta berriro ere, pertsonaiaren generoa gizarteak esleitutako estereotipoekin erlazionatu dute. Horrez gain, ipuinak sortzeko garaian, protagonismoa mutilengan jarri dute.

Laburbilduz, ikerketa honen bigarren helburua lortu dela azpimarratu daiteke: esku-hartzea diseinatzea nahiz aplikatzea, aztertutako albumak erabiliz, umeengandik datuak ateratzeko.

Albumetako ilustrazioen azterketaren emaitzak eta ikastetxean lortutakoak alderatzean antzekotasunak begi bistan gelditzen dira, bietan genero estereotipoak birproduzitzen direlarik. Dena den, umeengandik ateratako datuetan estereotipo hauen aztarna nabarmenagoak dira. Ikerketa honi esker lortu diren emaitzak bai edozein persona kontzientziatzeko bai irakasle batentzat baliogarriak dira. Albumak zer diren azaltzeaz gain, adibideak ere eman dira, estereotipoen sinbologia aurkeztu da, eta umeek genero estereotipoak zeinen barneratuta daukaten azalatu da. Honi esker, irakasleak kontura

daitezke gelan lantzea komeni den gaia dela, eta albumen erabilera sustaztea ondo legokeela.

Horretaz aparte, lan honen hasieran aipatutako galdera pare bat “errealitatearekin alderatuz, egia al da emakume guztiak argalak eta ederrak direla?” eta “zer gertatzen da itxurarekin?” izan dira. Orokorrean esan daiteke, pertsonaia guztiak argalak irudikatu dituztela eta emakumeak *¡De aquí no pasa nadie!* albumean lirainak margotu dituztela, makillajea erabiliz. Eguneroko bizitzari erreparatzen badiogu, ikus daiteke emakume guztiak ez dutela makillajea erabiltzen eta guztiak ez direla argalak. Milaka gorputz anitz daude, baina aztertutako albumetan gutxi batzuk irudikatzen dituzte.

Bestalde, lanean zehar, irudiek euskarri hezitzaile bezala duten garrantzia azpimarratu da, ideia hau nabarmenduz: albumak ez dira neutroak, eta irudietan, mezuetan bezalaxe, munduaren interpretazioa zabaltzen da. Horregatik, etorkizunean, ezinbestekoa izango da, albumen erabilera edozein delarik ere (hezitzaile edo senide batek kontatuta edo hurrek bere kabuz erabilia), albumak bere osotasunean aztertzea, hurrei eskaini baino lehen. Dena den, ipuinekin geratzen den bezala, kalitate handiko albumak daude genero estereotipoak birproduzitzen diren arren. Umeei ez zaie liburuak irakurtzea debekatu behar, baizik eta ikuspegi kritiko batekin ikusten bultzatzea. Behin albuma irakurrita, irakasleak talde osoan hausnarketa bultzatu dezake eta gaiarekiko lanketa egin. Izan ere, Niño Jesús ikastetxean egindako proposamen didaktikoaren emaitzetan ikusi den bezala nahitaezkoa da.

Ikasleekin aurrera eraman den esku-hartzeak bi helburu zituen: alde batetik, marrazkietan genero estereotipoak daudela identifikatzea, albumetako irudiak erakutsiz eta hausnarketa eginez, ikuspegi kritikoa garatzeko; eta bestetik, irudiek gugan eragina dutela ikustea, marrazkiak eginez, ikasleek ikuspuntu berria edukitzeko. Bi helbururak jorratu diren arren, lanketa sakonagoa eta epe luzekoa behar dela egiaztatu da, zeharkakoa edota zuzenekoa izan daitekeena. Genero estereotipoen gaia zabala izanik, ikasgai ezberdinetan jorratu daiteke eta ez bakarrik ipuin edo album bat irakurtzean.

Beste ondorioetako bat album bat hautatzeko garaian sariduna izateak ez duela hezkidetza bermatzen izan da. Hau da, liburu batek sari bat eduki arren, ilustrazioek ez dute zertan genero estereotipoak alde batera utzi. Hori argi ikusi da bai *El muro en mitad del libro* bai *¡De aquí no pasa nadie!* albumetan. Beraz, ikerketaren hasieran planteatutako galdera hauen erantzuna ageri da: liburu bat ona dela esaten da testua egokia bada, baina irudiak ez dira liburuaren parte? Berdin da aproposak diren edo ez? Eta aditzera ematen duten mezua ez al da garrantzitsua? *¡De aquí no pasa nadie!* albumak 2015ean Portugaleko Komikien

Sari nazionala irabazi zuen arren, aurretik esan bezala, hainbat genero estereotipo birproduzitzen ditu.

9. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan honi amaiera emateko egin daitezkeen hobekuntzen inguruan eta egindako lanari buruz hausnartzea gelditzen da. Hasteko, aipatu behar da egindako ikerketaren lagina txikia dela ondorio orokorrik ateratzeko, lau album bakarrik erabili direlako. Lanean hamarkada honetako album zehatz batzuk baino ez dira aztertu, eta beraz, amaieran ateratako ondorioak album horien azterketaren ondorioak besterik ez dira.

Lehenengo hobekuntzari dagokionez, hiru irizpide egon dira liburuak aukeratzeko garaian: album ilustratua izatea, azken hamarkadakoa izatea eta liburuaren gaia genero estereotipoa ez izatea. Hobekuntza moduan, irizpide bat gehituko litzateke, euskaraz argitaratutako albumak izatea. Euskal Herrian egonda eta euskararen erabilera eskasa dagoela jakinda, hizkuntza hau bultzatzea gomendagarria izango litzateke. Esan beharra dago, ikerketa honetan hizkuntzari ez zaiola beharrezko garrantziarik jarri ilustrazioek arreta osoa bereganatu dutelako.

Begiradak ilustratzen esku-hartzean ere hobekuntzak egin daitezke. Proposamenak hiru fase ditu eta lehenengoan izan ezik gainerakoetan ariketa bakarra dago. Gomendagarria izango litzateke esku-hartzea luzatzea ariketa gehiago eginez, astean behin tartetxo bat eskainiz. Patxadaz eta denborari erreparatu gabe egin ahal izanez gero, benetako cadáver exquisito-a aurrera eramatea ondo legoke. Horrez gain, aitortu behar da, bigarren mailako umeei ipuin bat binaka egitea eskatzea gehiegizkoa dela, jarduerari ordu bat soilik eskaintzen bazaio. Erraztasunak emateko asmoz, ipuina denen artean sortzea eskatu ahal zaie, edota maila nahiz ziklo ezberdinen artean burutzea. Horrela izanda, ipuinez gain fanzineak edo albumak sor ditzakete. Gainera, adin/ezaugarri/ezagutza desberdinak inplikatzean, guztiek ikasketa esanguratsua lor dezakete.

Amaitzeko, ikerketa honek etorkizunerako beste ikerketa ildo batzuk proposatzera darama. Etorkizuneko balizko ikerketa honen garapen batean interesgarria izango litzateke ideologia feministetatik hurbil dauden irudigileen irudiak aztertzea. Modu horretan, konparaketa bat egin ahal izango litzateke feminismoetatik hurbil dauden irudigileen eta urrun daudenen arteko irudien artean eta ilustrazioaren gaian feminismoek zenbaterainoko jarrera kritikoa izatea ahalbidetzen duten frogatu ahalko litzateke. Beste ikerketa posible bat

Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko maila batean irakurtzen diren ipuinen/testu liburuen ilustrazioak aztertzea izango litzateke.

10. HAUSNARKETA

Behin lana burututa, hausnarketa txiki baten ordua iritsi da. Ikerketak buruhauste itzelak eman arren, oso aberasgarria izan dela aitortu beharra dago. Gustuko gai bat aukeratzen denean, motibazioa gailentzen denez, errazago lan egiten da.

Hasieratik, irudiekin lan egingo nuela eta ikastetxe batean esku-hartzea egin nahi nuela argi nuen, baina galduta sentitzen nintzen, ez nekielako zein arlori fokoa jarri eta nondik bideratu. Artearen funtzio ezberdinen presentzia ikertzea pentsatzetik, albumetako ilustrazioek zein genero estereotipo birproduzitzen duten aztertzerira iritsi naiz. Justifikazioan esan bezala, iaz genero literario berri honi buruzko informazioa eskuratu nuen eta oso interesgarria iruditu zitzaidan; irudiaren eta testuaren arteko harremana eta baita irudiek duten funtsezko garrantzia ere.

Albumak oinarri harturik, estereotipoetan zentratzea erabaki nuen, baina hainbeste daudenez, zeinetan arreta jarri? Estereotipo mota zehaztearren, gogoeta ugari egin dut, denak garrantzitsuak iruditzen zitzaizkidalako. Gaia erabaki ostean, lana egiten nindoala, behin eta berriz aldaketak egin ditut, galdera ezberdinak planteatu, beste batzuk erantzun, kezka anitz sortu zaizkit, desagertu eta berriak sortu, etab. Hortaz, prozesu osoan zehar ikasten joan naiz. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka egin arren, frustrazioa, estresa eta estutasun sentimenduak plazaratu ditut.

Lanari dagokionez, arestian aipatu bezala, ikerketa egiten oso gustura sentitu naiz, oso aberasgarria izan da, bai arlo akademikoari bai arlo pertsonalari dagokionez. Jakintza handitzeaz gain, autonomia nahiz autogestioa zer diren ikasi dut. Bestalde, ikerketak irakasle bezala ikasgelan genero estereotipoen lanketa beharrezkoa dela ikusteko aukera eman dit. Gainera, irudiekin hezitu eta jolastu daitekeela ikasi dut, eta baita albumen erabilera sustatzea gomendagarria dela ere. Bukatzeko, irakasle naizenean liburuetan agertzen diren irudiak aintzat hartu behar ditudala konturatu naiz.

Emaitzak direla eta, pozik nago uste bainuen genero estereotipoak liburu guztietan birproduzituko zirela, eta ez da hala izan. Tamalez, umeen emaitzak aintzat hartuz, ezin da gauza bera esan. Aurrerapauso galanta egiten jarraitu behar dugu, eta horretarako, gizartearen laguntza ezinbestekoa da.

11. ERREFERENTZIAK

- Agee, J. (2018). *El muro en mitad del libro*. Barcelona: La casita roja
- Arrazola, E. (2009). La literatura infantil hacia la igualdad de género. *Emakunde*, (75), 26-29.
- Bruno, P. (2010). *Z familia*. Pontevedra: Pamiela, Kalandraka
- Cervantes, M. (1990). El álbum ilustrado. *Peonza*, (14), 4-5.
- Comas d'Argemir, D. (2013). *La representación de las mujeres en los medios de comunicación*. Ondoko orrialdetik berreskuratua:
https://www.eldiario.es/agendapublica/impacto_social/representacion-mujeres-medios-comunicacion_0_193880948.html
- De Juan Herrera, J. eta Pérez, R.M. (2007). Sexo, género y biología. *Feminismo/s*, (10), 163-185.
- Díaz, K. Y. (2019). El género líquido: propuesta filosófica y ruptura con el paradigma de la identidad de género. *Folhmyr*, (11), 17-32.
- Domínguez, Y. (2017ko urriaren 10a). *Revelando estereotipos que no nos representan* [Bideoa]. <https://www.youtube.com/watch?v=H1C-vG4yBMI> orrialdetik berreskuratua.
- Durán, T. (2008). *Aprendiendo de los álbumes*. Ondoko orrialdetik berreskuratua:
http://www.casadaleitura.org/portalbeta/bo/abz_indices/002242_ot_aprendiendo_de_los_albumes_d.pdf
- Durán, T. (2009): *Álbumes y otras lecturas. Análisis de los libros infantiles*. Barcelona: Ediciones Octaedro.
- Erro, A. (2000). La ilustración en la literatura infantil, *Rilce*, (16), 3.
- Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza Saila. (2016). *Oinarrizko Hezkuntza Curriculuma. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*.
- González, B. (1999). Los estereotipos como factor de socialización en el género, *Comunicar*, (12), 79-88.
- Gutierrez-Garcia, F. (2011). Cómo leer el álbum ilustrado. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, (150), 13-21.
- Gutiérrez, J. (2016). Álbum I, *Peonza*, (119), 159-160.
- Martín, C. (1994). Teoría del desarrollo cognitivo y su aplicación educativa. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, (21), 232-235.
- Martínez, L. (2018). A. Nafarroa: Denonartean
- Matoso, M. (2011). *Todos Fazemos Tudo*. Portugal: Planeta Tangerina






- Minhós, I. (2017). *¡De aquí no pasa nadie!*. Barcelona: Takatuka
- Murillo Carreño, L. (2012). La ilustración infantil, una cuestión de entender a los niños. *Revista SCHEMA*, (1), 7-19.
- Navarro, J. (2017). *Definición de canon de belleza*. Ondoko orrialdetik berreskuratua: <https://www.definicionabc.com/social/canon-belleza.php>
- Noir, R. (2010). Sobre el movimiento LGHBT (lésbico-gay homosexual-bisexual transgénero). *Revista Electrónica de Psicología Política*, (22), 128-138.
- Noseda-Gutierrez, J. (2012). Muchas formas de transexualidad: diferencias de ser mujer transexual y de ser mujer transgénero. *Revista de psicología*, (2), 8.
- Orozco, M. A. (2009). *El libro álbum: definición y peculiaridades*. Ondoko orrialdetik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3299531>
- Rosero, J.(2010). *Las cinco relaciones dialógicas entre el texto y la imagen dentro del álbum ilustrado*. Ondoko orrialdetik berreskuratua: http://www.ilustradorescolombianos.com/documentos/doc/LAS_CINCO_RELACIONES_DIALOGICAS-JOSE%20ROSERO.pdf
- Revista Páginas (2013). *Ilustraciones*. Ondoko orrialdetik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5402572>
- Saavedra, C. (2017). *La cuesta de septiembre: el monopolio de los libros de texto*. Ondoko orrialdetik berreskuratua: <https://www.elsaltodiario.com/educacion/la-cuesta-de-septiembre-el-monopolio-de-los-libros-de-texto>
- Sánchez, S. (2019). Olvidadas antes de ser conocidas. La ausencia de mujeres escritoras en los libros de texto en la enseñanza obligatoria, *Revista Prisma Social*, (25), 205.
- Segurado, N (2009). *'Cadáveres exquisitos': de pasatiempo de los surrealistas a divertimento en la Red*. Honako orrialdetik berreskuratua: <https://www.20minutos.es/noticia/459838/0/cadaver/exquisito/internet/>
- Sotres, P. (2017ko maiatzaren 16a). *Introducción a la Ilustración - Que es y funciones* [Bideoa]. https://www.youtube.com/watch?v=l_5xsDLO43o orrialdetik berreskuratua.
- Suría, R. (2010). *Tema 5. estereotipos y prejuicios*. Ondoko orrialdetik berreskuratua: <https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/14289/1/TEMA%205.%20ESTEREOTIPOS%20Y%20PREJUICIOS..pdf>
- Turín, A. (1995). *Los cuentos siguen contando*. Madril: Horas y Horas.
- Van der Linden, S. (2006). Lire l'Album. *Les Actes de Lecture*, 95, 13-16.

Urtxintxa eskola (2007). Ipuinak ez sexistak izateko gida. Gomendioak eta adibide praktikoak. Bizkaia: Urtxintxa eskola.

Zaitegi de Miguel, N. eta Urruzola Zabalza, M. J. (1993). *Nola landu eta aukeratu hezkidetzako ikasmaterialak*. Gasteiz: Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

12. ERANSKINAK

12.1. Ikasleek egindako marrazki batzuk



12.2. Interneten bidez erakutsitako marrazki batzuk



12.3. Albumen azterketa

¡DE AQUÍ NO PASA NADIE!

	GIZONAK	EMAKUMEAK
1.- PRESENTZIA		
Pertsonaia-kopurua	36	14
Haurrak	3	3
2.- PROTAGONISMOA		
Protagonista nagusia	Guardia 2 ume	0
Protagonistaren rola/jarrera/betebeharrak	-Guardiak gainerako pertsonaiei ez die igarotzen uzten -Umeak lehenak dira debekatuta dagoena egiten	0
Gainerako pertsonaien rola/jarrera/betebeharrak	13 gizon kexatzen dira edo azalpenak eskatzen dituzte	4 pertsona kexatzen dira edo azalpenak eskatzen dituzte
3.- JANTZIAK		
Arropa mota	Trajedunak Kirok arropa Prakak eta kamiseta Lapur arropa Uniformeak Petoak	Soinekoak 9 Gona 1 Prakak 4
Arroparen kolorea	Denetarik	Denetarik
4.- GORPUTZA		
Ilea	Motza Kolare desberdinak	Luzea Kolare desberdinak
Argala/lodia	Guztiak argalak	Guztiak argalak haurdun dagoena izan ezik
5.- FAMILIA		
Seme-alabak eduki	1	2

6.- LANBIDEAK

Lanbideak	★ 4 kirolari ★ guardia ★ 2 ume futbolean jolasten ★ sukaldaria ★ detektibea ★ musikaria ★ polizia ★ 2 lapur ★ 2 langile ★ generala ★ bidaiaria ★ astronauta ★ dantzaria	★ Dantzaria ★ Bidaiaria ★ Hamabik ez dute ezer egiten
-----------	---	---

Bere generoari atxikitzen ez zaizkion lanbideak

1

0

Ordaindutako lanbideak

14

1

7.- OBJEKTUAK

Bere generoari atxikitzen ez zaizkion objektuak

0

0

8.- ESPAZIOA

Espazioaren kudeaketa

2 ume izan dira ausartenak eta debekatuta dagoena egin dute

9.- BESTELAKOAK

Animaliak

-Untxi arra, alien arra.

-Umeekin batera txakurra igaro da. Adela Turinek esan bezala, mutilekin txakurra ageri da

Lehenengo albumaren azterketa

EL MURO EN MITAD DEL LIBRO

GIZONAK	EMAKUMEAK
1.- PRESENTZIA	
Pertsonaia-kopurua	Animalia ugari daude eta zaldun bat. Ez dago neskarik
Haurrak	1
2.- PROTAGONISMOA	
Protagonista nagusia	1
Protagonistaren rola/jarrera/betebeharrak	-Horma konpondu eta irakurleekin hitz egiten du -Hormaren beste aldeari beldurra dio
Gainerako pertsonaien rola/jarrera/betebeharrak	-Animaliek beste animaliak jaten dituzte -Ogroak zalduna salbatzen du
3.- JANTZIAK	
Arropa mota	Zaldunen arropa
Arroparen kolorea	Grisa
4.- GORPUTZA	
Ilea	Ez zaio ikusten
Argala/lodia	Argala da
5.- FAMILIA	
Seme-alabak eduki	Haurra denez ezin ditu eduki
6.- LANBIDEAK	
Lanbideak	Ez du lanbiderik
Bere generoari atxikitzen ez zaizkion lanbideak	Ez
Ordaindutako lanbideak	Ez
7.- OBJEKTUAK	

Bere generoari atxikitzen ez zaizkion objektuak	Ez
8.- ESPAZIOA	
Espazioaren kudeaketa	Espazio publikoan dago
9.- BESTELAKOAK	
	Bukaeran animaliekin jolasten du, errinozeronte baten gainean dagoen bitartean

Bigarren allbumaren azterketa

Z FAMILIA

	GIZONAK	EMAKUMEAK
1.- PRESENTZIA		
Pertsonaia-kopurua	Hainbat	Hainbat
Haurrak	1	
2.- PROTAGONISMOA		
Protagonista nagusia	2 (aita eta semea)	1 (ama)
Protagonistaren rola/jarrera/betebeharrak	-Aita: gosaria prestatu -Semea: eskolara joan eta jolasorduan kulunkan egon	-egunkaria irakurri -Gidatu
Gainerako pertsonaien rola/jarrera/betebeharrak	Zirkuan lan egiten dute	
3.- JANTZIAK (zailtasunak daude neska edo mutila den jakiteko)		
Arropa mota	Kamisetak Prakak Alkandorak Botak Korbata	Kamisetak Prakak Alkandorak Takoiak Gona Amerikana

Arroparen kolorea	Denetarik	Denetarik
4.- GORPUTZA		
Ilea	-Motza edo burusoila -Bibotea	Luzea
Argala/lodia	Argalak	Argalak
5.- FAMILIA		
Seme-alabak eduki	1	1
6.- LANBIDEAK		
Lanbideak	Jostuna Zirkuan lan egin	Magoa Zirkuan lan egin
Bere generoari atxikitzen ez zaizkion lanbideak	Jostuna	Magoa Zirkuan lan egin
Ordaindutako lanbideak	Bai	Bai
7.- OBJEKTUAK		
Bere generoari atxikitzen ez zaizkion objektuak	Josteko makina, haria, txigorgailua eta kafeontzia	Egunkaria Pesak
8.- ESPAZIOA		
Espazioaren kudeaketa	Toki pribatuetan nahiz publikoetan daude	Toki pribatuetan nahiz publikoetan daude
9.- BESTELAKOAK		
Katua aitarekin agertzen da		








Hirugarren albumaren azterketa

A

GIZONAK		EMAKUMEAK
1.- PRESENTZIA		
Pertsonaia-kopurua	1	
Haurrak		1
2.- PROTAGONISMOA		
Protagonista nagusia	Biak protagonistak dira	
Protagonistaren rola/jarrera/betebeharrak	Neska ikaratu	Otsoari aurre egin Ausarta da
3.- JANTZIAK		
Arropa mota	Ez du arroparik	Soinekoa edo kamiseta luzea
Arroparen kolorea	Kolore gabeko ilustrazioak dira	
4.- GORPUTZA		
Ilea	Ez du	Ile motza eta kizkurra
Argala/lodia	Argala	Argala
Egoteko modua	Hasieran harro-harro dago eta gero burumakur	Hasieran eserita dago eta oldartzen denean zutitzen da
9.- BESTELAKOAK		
	Otsoa goibel jartzen denean eta neska berarengana jotzen duenean otsoaren baitan zerbait aldatzen da	Neskak maitasun keinu bat oparitzen dio eta bere bidea jarraitzen du. Bere baitan ere zerbait aldatzen da.

Laugarren albumaren azterketa

12.4. Ikasleek pertsonaiei esleitutako izenak

<i>Ikasleak</i>	<i>Carlos</i> 	<i>Cárol</i> 	<i>Simón</i> 	<i>Víctor</i> 	<i>Guardia</i> 	<i>Madre</i> 	<i>Cris</i> 
Adaia	Mikel	Alejandra	Rocky	Ines	Juan Esteban	Verdecito	Sandra
Ares	Andrés	Andrea	Paco	Nala (neska)	Beñat	María	Rakel
Beñat B.	Sol (neska)	Paula	Azul (mutila)	Rock (neska)	Mila	Mermelada (mutila)	Lucía
Beñat G.	Peludo (mutila)	Superpota (neska)	Manolo	Koke (mutila)	Sabelotodo (mutila)	Espacial (neska)	Ángela
Mikel	Rodolfo	Cristiano Ronaldo	Saul	Álvaro	Koke	Payaso (mutila)	Pepino (neska)
Álvaro	Koke	Lucía	Paula	Inma	Victor	Payaso (mutila)	Narizota (neska)
Álvaro Daniel	Axel	Lucía	Ana	Rita	Guardián (mutila)	Pinotxo (mutila)	Asun
Adrian	Juanito	Pepita	Dani	Sandi	Víctor	Karol	Karla
Izaro	Marcof (mutila)	Pepe	Santiago	Sorpe (mutila)	Isabel	Clara	Izaro
Esti	Beñat	Ian	Alba	Jakue	Dani	Carlos	Ares
Alba	Jorge	Mimo (mutila)	Lipi (mutila)	Cipe (neska)	Mami (neska)	Cice (neska)	Cece (mutila)
Daniel	Daniel	Inés	Josu	Pilar	Diego	Jakue	Zara
Adrian B.	Pepe	Marian	Ian	Ane	Juan	Juan	Ares
Daniela	Juan	Claudia	Julián	Eduardo	Federico	Manolito	Mar
Marco	Santi	María	Carlos	Mario	Álvaro	Miguel	Eva
Maidar	Jon	Lina	Ian	Lucía	Jaime	Rafael	Carla
Paula D.	Victor	Liri (neska)	Bizkor (mutila)	Moli (mutila)	Beñat	Rosa	Kira (neska)
Jakue	Ian	Pequeñita	Gafitas (mutila)	Pepito	Beñat	Payaso (mutila)	Pepita
Unai	Juan	Daniela	Bruno	Carlos	Mikel	Sebas	Sebastián
Carla	Manolo	Lola	Koke	Nahia	Daniel	Pedro	Juan
Juan Esteban	Jon	Katoi (mutila)	Marco	Javi	Mikel	Payaso (mutila)	Pao (neska)
Ian	Pinotxo	Izaro	Ian	Paula	Pablo	Pili	Maidar
Aimar	Barril (mutila)	Markel	Marco	Carlos	Álvaro	Paula	Victor
Alejandro	Messi	Saltxitxa (mutila)	Juan Esteban	Asensio	Pepito	Isko (mutila)	Neymar
Lucía	Markel	María	Isei (mutila)	Leo	Aimar	Isabel	Alicia

12.5 Arrazoiak

<p>1</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZERGATIK MUTILA?</th> <th>ZERGATIK NESKA?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ilea motza duelako • Kuzela egiten duelako • Babera duelako • Krestea duelako • Futbola jolasten duelako • Arozapigatik </td> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ilea perta bat luzea duelako </td> </tr> </tbody> </table>	ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?	<ul style="list-style-type: none"> • Ilea motza duelako • Kuzela egiten duelako • Babera duelako • Krestea duelako • Futbola jolasten duelako • Arozapigatik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ilea perta bat luzea duelako 	<p>2</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZERGATIK MUTILA?</th> <th>ZERGATIK NESKA?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ehiztaria delako • Trojea duelako • Guardia delako </td> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ilea luzea duelako </td> </tr> </tbody> </table>	ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?	<ul style="list-style-type: none"> • Ehiztaria delako • Trojea duelako • Guardia delako 	<ul style="list-style-type: none"> • Ilea luzea duelako
ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?								
<ul style="list-style-type: none"> • Ilea motza duelako • Kuzela egiten duelako • Babera duelako • Krestea duelako • Futbola jolasten duelako • Arozapigatik 	<ul style="list-style-type: none"> • Ilea perta bat luzea duelako 								
ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?								
<ul style="list-style-type: none"> • Ehiztaria delako • Trojea duelako • Guardia delako 	<ul style="list-style-type: none"> • Ilea luzea duelako 								
<p>3</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZERGATIK MUTILA?</th> <th>ZERGATIK NESKA?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ile beltza duelako • Flekulara duelako • Futbola jolasten ari delako </td> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ile luzea duelako • Braka moreak dituelako </td> </tr> </tbody> </table>	ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?	<ul style="list-style-type: none"> • Ile beltza duelako • Flekulara duelako • Futbola jolasten ari delako 	<ul style="list-style-type: none"> • Ile luzea duelako • Braka moreak dituelako 	<p>4</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZERGATIK MUTILA?</th> <th>ZERGATIK NESKA?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ileaगतिक </td> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Nesken kamiseta duelako • Sornekoa duelako • Ileaगतिक </td> </tr> </tbody> </table>	ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?	<ul style="list-style-type: none"> • Ileaगतिक 	<ul style="list-style-type: none"> • Nesken kamiseta duelako • Sornekoa duelako • Ileaगतिक
ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?								
<ul style="list-style-type: none"> • Ile beltza duelako • Flekulara duelako • Futbola jolasten ari delako 	<ul style="list-style-type: none"> • Ile luzea duelako • Braka moreak dituelako 								
ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?								
<ul style="list-style-type: none"> • Ileaगतिक 	<ul style="list-style-type: none"> • Nesken kamiseta duelako • Sornekoa duelako • Ileaगतिक 								
<p>5</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZERGATIK MUTILA?</th> <th>ZERGATIK NESKA?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Krestea duelako • Jantziगतिक "jantzi rockera" </td> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Bielzarritakak dituelako </td> </tr> </tbody> </table>	ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?	<ul style="list-style-type: none"> • Krestea duelako • Jantziगतिक "jantzi rockera" 	<ul style="list-style-type: none"> • Bielzarritakak dituelako 	<p>6</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZERGATIK MUTILA?</th> <th>ZERGATIK NESKA?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Paulazo itxura duelako • Jentziaren kolorea iluna delako </td> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ile luzea eta kizkurra duelako • Urtekin dagoelako • Sornekoa duelako </td> </tr> </tbody> </table>	ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?	<ul style="list-style-type: none"> • Paulazo itxura duelako • Jentziaren kolorea iluna delako 	<ul style="list-style-type: none"> • Ile luzea eta kizkurra duelako • Urtekin dagoelako • Sornekoa duelako
ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?								
<ul style="list-style-type: none"> • Krestea duelako • Jantziगतिक "jantzi rockera" 	<ul style="list-style-type: none"> • Bielzarritakak dituelako 								
ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?								
<ul style="list-style-type: none"> • Paulazo itxura duelako • Jentziaren kolorea iluna delako 	<ul style="list-style-type: none"> • Ile luzea eta kizkurra duelako • Urtekin dagoelako • Sornekoa duelako 								
<p>7</p> <table border="1"> <thead> <tr> <th>ZERGATIK MUTILA?</th> <th>ZERGATIK NESKA?</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td></td> <td> <ul style="list-style-type: none"> • Ile luzeगतिक • "Nesken" arropa duelako kamisetak puntuak dituelako </td> </tr> </tbody> </table>		ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?		<ul style="list-style-type: none"> • Ile luzeगतिक • "Nesken" arropa duelako kamisetak puntuak dituelako 				
ZERGATIK MUTILA?	ZERGATIK NESKA?								
	<ul style="list-style-type: none"> • Ile luzeगतिक • "Nesken" arropa duelako kamisetak puntuak dituelako 								

12.6. Ikasleek sortutako ipuin batzuk

